



# Bizitza Jokoan

Giza eskubideak eta naturaren  
eskubideak urratuta



**mugarik  
gabe**

## Bizitza Jokoa Giza eskubideak eta naturaren eskubideak urratuta

Euskal Herria - 2022ko Urtarrila

© Mugarik Gabe  
© Egilea: Jesus González Pazos  
ODAL-Observatorio de Derechos en América Latina  
LEB-Latinoamerikako Eskubideen Behatokia

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:  
Coma Comunicación Creativa  
coma.gal

### ARGAZKIAK:

Al Borda Films (portada); Luís Misael Socarras, Wayuu  
IIPUANA; Javier Arjona, Jesus González Pazos, Tamara de  
Gracia, Mugarik Gabe; Carlos Castro García (Contrast);  
Andrea Carrillo (La Cuerda).

### MUGARIK GABE

(www.mugarikgabe.org)  
Facebook: Mugarik Gabe  
Twitter: @mugarikgabe  
Youtube: Mugarik Gabe

### ARABA

'Itziar' elkartearen etxea. Zalburu plaza z/g  
01003 Vitoria-Gasteiz  
945277385 (araba@mugarikgabe.org)

### BIZKAIA

Vicente Garamendi taldea 5, lokala  
48006 Bilbao  
944154307 (bilbao@mugarikgabe.org)

### GIPUZKOA

Katalina Elizegi 46, behe, 4. atea  
20009 - Donostia  
943445977 (gipuzkoa@mugarikgabe.org)

Creative Commons lizentziapean argitaratutako lana. Erreprodukzio osoa edo partziala baimentzen da, honako baldintza hauek betez gero:

- a) Aitortu (Attribution): Materiala hirugarren pertsonak banatu, kopiatu eta erakutsi dezakete, kredituetan aipatzen bada.
- b) EzKomertziala (Non comercial): Jatorrizko materiala eta lan eratorriak banatu, kopiatu eta erakutsi egin daitezke, erabilera komertziala ez duten bitartean.
- c) LanEratorririkGabe (NoDerivativeWorks): Materiala banatu, kopiatu eta erakutsi daiteke, baina ezin da erabili jatorrizkotik eratorritako lan bat sortzeko.



Ikerketa eta sistematizazio hau **“Bizitza Jokoa: Giza eta Naturaren eskubideen, klima-krisiaren eta Komunikazioaren defentsa”** proiektuaren baitan garatu da 2020. urtean, eta Eusko Jaurlaritzaren Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak (GLEA) eta Mugarik Gabek finantzatu dute. Argitalpen honen edukia egilearen eta Mugarik Gabe taldearen ardura da, eta ez du Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia ez du engaiatzen, proiektuaren finantzatzaile izan den arren.



# Bizitza Jokoan

Giza eskubideak eta naturaren  
eskubideak urratuta



*"Hain beharrezko diren pertsona eta elkarteei, beraiek ari baitira planeta guztiontzat jasangarria izan dadin lanean; hain beharrezko diren pertsona eta elkarteei, beraiek ari baitira guztiontzat bidezkoagoa den mundu baten alde borrokan"*

# Aurkibidea

## GIZA ESKUBIDEAK ETA NATURAREN ESKUBIDEAK URRATUTA / 7

- Munduaren erabilera anitzak / 8
- Lurra eta jokoan ditugun giza eskubideak / 8
- Balizko diagnosi bat / 9
- Enpresa transnazionalak / 11
- Giza eskubideak, naturaren eskubideak eta transnazionalak: ezinezko harremana / 11

## PARAGUAI: SOJAZKO ITSASOAN ITO BEHARREAN / 13

- Europa bultzaka / 14
- Lurraren negozioa / 14
- Paraguai eta Sojaren Errepublika Batua / 15
- Nor da nor? / 15
- Paraguai, gaitzik gabeko lurra / 15
- Lurra defendatzeagatik kriminalizatuak / 17
- Emakumeak eta landa negozioa / 17
- Indigenen eta nekazarien eskariak eta aurrerapenak / 18

## KOLONBIA, BIZITZA BELZTEN DUEN IKATZ / 19

- Baina, nor da nor? / 20
- Eta giza eskubideak eta lurarenak, desagertu egin al dira? / 20
- Meatzeen garapenean hitzemandakoak eta errealitatea / 21
- Wayuu herria, Wayuu emakumeak eta meatzaritza / 22
- Kolonia ikaztua, Espainia ikatzez hustua / 23

## GUATEMALA ETA URAREN PRIBATIZAZIOA / 25

- Errepresioa eta kriminalizazioa / 26
- Alta Verapaz: bioaniztasuna eta pobrezia, maila berean / 26
- RENACE eta OXEC konplexu hidroelektrikoak / 26
- Baina, nor da nor? / 27
- Zer egiten dute Europar Batasunak eta Espainiar estatuak? / 28
- Eskubideak betez? / 28
- Kriminalizazio prozesuak / 28
- Emakumeen kriminalizazioa / 29
- Eskariak eta aurrerapausoak: protesta birsortzen, lurraldea defendatzen / 29

## HONDURAS: BANANA ERREPUBLIKATIK ERREPUBLIKA ESTRAKTIBISTARA / 31

- Errepublika estraktibista / 32
- Eragin ekologikoez hizketan / 32
- Giza eraginez hizketan / 33
- Eskubideak urratzen / 33
- Erresistentzien batura / 34

Argitalpen hau Mugarik Gabek 2021ean egin duen ikerketaren laburpena da, eta Icaria Editorialak (2022) argitaratzen du, honako izenburu honekin: **“La Vida en Juego – Bizitza Jokoan. Giza eskubideak eta naturaren eskubideak urratuta”**.





Argazkia: Tamara de Gracia, Mugarik Gabe

## Giza eskubideak eta naturaren eskubideak urratuta

*"Amalurra militarizatua, hesituta, pozoituta dago, [...] zerbait egiteko garaia dugu". Berta Cáceres.*

*"Naturan hain gustura sentitzeak badu arrazoi bat, eta da berak ez duela inolako iritzirik gurekiko". Friedrich Nietzsche alemaniar filosofoaren hitzak dira; dena den, pentsatzen jarritz gero naturak halako ahalmenik balu gutaz zer pentsatuko lukeen, zalantzarik gabe, zer pentsa ematen du.*

Txosten hau ez da ikerketa zabalago baten laburpen bat besterik, zeinaren izena honakoa baita: "La Vida en Juego - Bizitza Jokoan. Giza eskubideak eta naturaren eskubideak urratuta". Icaria argitaletxeak eta Mugarik Gabek argitaratu berri dute. Lan horretan jasotzen dira enpresa transnazionalen eredu neoliberalaren barruan hartzen duten garrantziak sortzen dituen arazo larrietako batzuk, baita ahalik eta botere eta etekin handiena lortzeko giza eskubideak eta naturarenak urratzeko agertzen duten prestutasuna ere.

Argi eta garbi dago eskubide politiko, gizarte eskubide, eskubide ekonomiko eta kulturalerikiko errespeturik ez

dagoela, eta eredu estraktibista kontrolik gabe dabilenez, naturaren eskubideei ere eragiten diela, naturaren espoliazioarekin, esplotazioarekin eta suntsiketarekin loturikoei. Gauzak horrela, ulertuko dugu transnazionalen jarduketan eta giza zein naturaren eskubideen urraketa ugari eta anitzen artean harreman oso estua dagoela. Eskubideen urraketa horiek garapen ereduaren krisira garamatzate, baita sistema ekonomiko liberalak porrot egin duela ulertzer ere, ukaezina baita. Hala, porrot horren aurrean irtenbideak bilatzen hasi beharko genuke, ez badugu nahi atzetik datozen belaunaldiak munduko pertsona guztiek bizitza duin bat izateko ezintasunaz zigortzerik.

## Munduarien erabilera anitzak

Egungo sistema nagusiak mundua bi espazio geopolitiko eta ekonomikotan banatzen du, zenbait xehetasun gorabehera. Banaketa horretan, parlamentuetan hartzen diren erabakiek ez dute hainbesteko garrantzirik, enpresa transnazional handietako administrazio batzordeetako interes eta erabakiekin alderatuz gero.

Alde batean daude herrialde aberatsak, garai batean herrialde garatuak esaten genien horiek. Beraien ezaugarrien artean, lehengai kopuru urria izan arren, horiek sobera erabili eta xahutzea. Horrez gain, hondakin gehien sortzen dutenak dira, eta klima-krisia okertzen duten bestelako jardura asko ere egiten dituzte.

Beste aldean daude herrialde pobreak, planetaren hegoaldea. Han, labur esanda, egoera justu kontrakoa da: baliabide naturalak daukate, eta horregatik, estraktibismoa bultzatzen dituzte, herrialde aberatsen beharrak ase ahal izateko. Herrialde horiek, nahiz eta orokorrean hitz egin ezin daitekeen, herrialde aberatsen zabortege ere badira, eta hondakinez gain kontzientzia txarrak ere biltzen dituzte.

Zatikatzeko hori zehaztu daiteke, noski, baina planetako errealitatea du oinarri, eta guztiz lotuta dago giza eta naturaren eskubideak urratu edo errespetatzearekin, izan norbanakoarenak zein kolektiboak. Banaketa horrek, esan bezala, ondorio negatibo asko ditu, honako hauek, besteak beste: jendea hiltzea, beraien jaioterrietatik kanporatzea eta herritarren desplazamenduak eragitea, beraien bizilekua guztiz kaltetzen delako (deforestazioa, lehorteak, kutsadura, etab.) edo enpresek naturaren baliabideak ustiatzen jarraitu ahal izateko indarkeria erabiltzen dutelako. Aipatu esaldi horiek baieztatzen nahikoa da honako datua: ezartzen diren irizpideekin estatistikak aldatzen diren arren, batzuek diote giza eskubideen eta naturaren 400 defendatzaile baino gehiago hil zituztela Latinoamerikan 2020an.

Desplazamendu klimatikoaren deritzonari dagokionez, Barne-mugimenduak Monitorizatzen Zentroaren arabera 2019an munduan desplazatu ziren 33,4 milioi pertsonen artean 24 milioi klima arrazoiak izan zituen tarteko, hondamendi

naturalen eraginez, hain zuzen. Gaur egun hondamendi horiek ez dira hain naturalak, asko gizakiok eta gure sistema nagusienak sortutako klima-krisiak eragiten dituzte. Gure sistemak desertifikazioa, tenperaturek pixkanaka gora egitea edo itsasoen mailak gora egitea eragiten du, eta horrek, aldi berean, munduko leku askotan bizitzea zaildu edo ezinezko bihurtzen du. Eta, nola ez, "klima aldaketaren eragina gogorragoa da komunitate zaugarri eta pobreenetan eta, beraz, gaitasun gutxiago dute halako egoerei aurre egiteko"<sup>1</sup>.

*Klima-aldaketak  
ez du muga  
politikoez ezer  
ulertzen, baina  
ulertzen du  
desberdintasunez,  
ekitate faltaz eta  
gizarte klaseez.*

## Lurra eta giza eskubideak jokoan

Gizakiok planetan egiten ditugun ekintzen gaur egungo eraginik nabarmenenetakoa da klima-krisia. Dimentsio izugarria hartu du, eta gaur egun ez dago argi planetan honetan etorkizunean bizitzarik izango den, gure espeziea bera barne. Krisi hori, gainera, beste batzuekin ere nahasten da, politikoarekin, gizartekoarekin, baloreenarekin eta giza eskubideenarekin, esaterako.

Hala ere, giza jarduerak terminoa erabiltzea oso

nahasgarria da. Nahiz eta ulertarazten digun guztiok dugula geure ardura planetan gertatzen ari denarekiko eta hori egia izan, ez du azaleratzen batzuek beste batzuek baino ardura handiagoa dutela.

Txosten honetan ikusiko dugu giza jarduerak planetan izan duten eragin kaltegarriaren arrazoia elite ekonomiko eta politikoen interesei erantzutea dela, eta, beraz, ardurarik handiena beraiena dela. Beraiek definitzen dute harremanen sistema eta produkzio zein kontsumo eredua. Hainbat herrialdetan beraiek agindutako estraktibismoa kontrolik gabe hedatu da, eta etekin ekonomikoaren izenean suntsitu dute natura. Beraiek dira transnazionalak nahi dituzten jarduerak egiteko bide ematen dietenak, ez axola zeren truke etekin ekonomikoa handitu dezaten. Beraiek dira egoera hori eten dezaketen erabaki politikoak baldintzatzen dituztenak. Beraiek dira, azken finean, klima-krisirantz, eskubideen krisirantz eta krisi zibilizatzailearentz garrantzitsua sistema inposatzen dutenak.

<sup>1</sup> de Sousa Santos, Boaventura (2021). "El futuro comienza ahora. De la pandemia a la utopía". Ediciones Akal, Madril. (232. or.)



“Hazkundearen mugak” Meadows txostenak, 1972an Erromako Klubak egin zuenak, jada aipatzen zuen ezinezkoa zela hazkundera mugagabea izatea, eta mintzo zen planetan eta bertako biztanle gehienengan izango zituen ondorioez. Hitzez hitz, honakoa esaten zuen: “munduko biztanleriaren hazkundeak, kutsadurak, industrializazioak, natur baliabideen ustiaketa eta elikagaien produkzioak horrela jarraitzen badute, inolako aldaketarik gabe, litekeena da lurreko hazkundearen mugara iristea, gehienez ere hurrengo mendean”. Txosten horri ez zitzaion behar bezalako sinesgarritasunik eman. Besteak beste, planetaren tenperaturaren gorakada aurreikusi zuen, esanez 2050erako 2 gradu igoko zela. Meadows txosten horren ondoren, prozesuak bere bidean jarraitzeaz gain, abiadura areagotu du, eta munduak, gero eta argiago ikusten du hazkunde mugagabearen arriskuak zeintzuk diren.

Beraz, klima-krisiari eta hortik eratorritako bestelako krisiei, naturaren suntsiketa edo giza eskubideen krisiari, kasu, aurre egiteko neurririk ez hartzeko erabakian parte hartzen dute mekanismo ideologiko eta politikoei, beraien interesa sistemari eustea baita.


## Balizko diagnosi bat

Egoeraren diagnosi nagusia izan daiteke giza eskubideak eszena politiko, ekonomiko eta mediatikotik desagertu izanak eskaintzen diguna. Baina diagnosi horretan ez gara aintzat hartzen ari eliteek naturaren eskubideak etengabe urratzeak duen larritasuna.

Dena den, erabaki politikoen oinarrian dagoen ildo ere gehitu egin behar zaie goiko bi horiei, berehala heldu behar zaien arazoei eragiten dien munduko eta tokian tokiko diagnosi bat egin nahi bada. Ildo hori da gizarte eta politika-estamentuen desideologizazioa, zeina gero eta nabarmenagoa baita, eta biztanleriaren eta zenbait sektore espezifikoren antolamendu eta parte hartze egiturak galtzea eragiten baitu. Hausnarketarako gaitasuna eta bizi ditugun garaiko politikaren, ekonomiaren, gizartearen eta naturaren baldintza eta koiuntura kritikoki aztertze gaitasuna, zalantzarik gabe, murriztu egin da, eta horrek jarrera autoritarioetarantzko deriba bat dakar.

Hitz-joko bat eginez, esan liteke zientzia politikoetan eta gizarte zientzietan fokua beti eskubideei begira egoten den arren, ekintza zehatzetara igarotzean fokua lainotu egiten dela. Giza eskubideen aldeko diskurtsoak ikusgarritasuna eta garrantzia galdu du mundu guztiko politiketan, izan mundu mailakoetan zein tokikoetan. Amnistia Internazionalak 2017. urteko egoerari zegokion txostenean adierazi zuen, izenburu deigarri hau jarri zioten: “Munduko buruzagiek giza eskubideak baztertu dituzte”.

Eta noski, maila horretan hori gertatzen bada, erraza da imajinatzen eskubideen urraketa hori arazorik gabe ezkutatu dela geopolitikak kontu txikiagotzat jotzen dituen egoeretan. Esate baterako, zer garrantzia dute giza eskubideek, nekazarien eta indigenen komunitateak “garatzeko” ezartzen dituzten proiektuak martxan jartzean? noiz hartzen dira aintzat emakumeek beraien gorputzekiko dauzkaten giza eskubideak horiek urratzen dituzten legeen aurrean, Nikaraguan eta El Salvadorren, esaterako? zer



Argazkia: Tamara de Gracia, Mugarik Gabe

zuzeneko ardura hartzen dute eta zeinen aurrean ez ikusiarena egin Guatemalako, Hondurasko, Kolonbiako edo Paraguaiako gobernu eta enpresa transnasionalek meatzaritzako, hidroelektrikoko, basogintzako edo nekazaritza-industriako estraktibismo proiektu handiak ezartzen dituztenean?

Baina, era berean, kontuan hartu behar dugu klima-krisiak, zeina naturaren eskubideen urraketa etengabeak eragina baita eta estuki lotua baitago ekonomia- gizarte- eta kultur krisiei, maila ezberdinetako arduradunak dituela. Horrez gain, ez dugu ahaztu behar bere eragina ere ezberdina dela gizarte sektoreen, kulturaren, etniaren edo generoaren arabera. Argitalpen honetan erakutsiko da, eta sakonago ikerketa osoan, klima-aldaketak ez duela mugez ezer ulertzen, baina bai desberdintasunez eta gizarte mailaz. Adibidez, ez dago zalantzan jartzetik ingurumenaren degradazioak biztanleriaren desplazamendua eragiten duela hainbat tokitan. Fenomeno hori lurralde zehatz batzuetan gertatzen da, eta biztanleria pobreenari eragiten dio.

Beste alde batetik, baina aurretik esandakoaren ildo berean, adierazten dugu halako egoerek ez dietela gizonei eta emakumei

modu berean eragiten, eta hori, nola ez, gizarte patriarkalen eragina da. Gizarte horietan, emakumeak gizonekiko egoera subalternoa bizi dira, nola alderdi indibidualean, hala kolektiboan eta, beraz, asko dago egiteko generoen arteko ekitatea lortzeko bidean. Gauzak horrela, naturaren eskubideen urraketak (kasu horretan nabarmenagoa da giza eskubideekiko duten lotura) eta horiek eragindako klima-krisiak emakumeengan ondorio txarrak dakartzate, eta, esan daiteke beraien ahalduztze prozesuak eta subjektu politiko gisa duten indarra ahultzen dituela horrek, gutxienez.

Dena den, hori ez da dena, giza eskubideei buruzko gogoeta-esparru horretan, beste zuzeneko ondorio bat ere badago: eskubideak defendatzen dituztenen kriminalizazioa. Garrantzitsua da argi uztea pertsona horiek jasaten dituzten pertsekuzioak, batez ere Latinoamerikakoak, Europan naturaren edo

ingurumenaren defentsa gisa ezagutzen dugun horri lotuta daudela. Defentsa hori, oro har, transnasionalek estraktibismo proiektuen aurka egiten da (meatzaritzakoak, hidroelektrikoak, basogintzakoak, nekazaritza-industriakoak). Izan ere, proiektu horiek, gobernuak babestuta, lurraldeak espoliatzen dituzte. Hala, esan liteke azken urteotan Mexiko, Guatemala, Honduras, Brasil edo Kolonbia gisako herrialdeetan eraildako pertsona gehienak giza eskubideen edo lurren eta lurraldearen defendatzaileak zirela. Esaten ez dena da pertsona horiek indigenak direla, nahiz eta baldintza hori erabat garrantzitsua izan beraien borroka ulertzeko, eta nahiz eta lotura hori argi ikusten den giza eskubide indibidual eta kolektiboan eta naturaren edo Amaluraren eskubideen artean ezartzen duten harreman estuan.

Diagnosi azkar honen azken alderdiak komunikabide masiboek aipatu egoeretan duten rolaekin du zerikusia. Gehienetan ekonomia talde handien jabetzakoak direnez, komunikabideek horien interesen arabera jokatzeko dute. Eta, hala, aniztasun mediatiko eta ideologikoaren itxura egiten duten arren, errealitateak adierazten du gero eta komunikabide masibo gehiago

daudela gero eta gutxiagoren eskutan, eta ildo editorialen eta ideologiaren aniztasuna ere gero eta murriztagoa dela, ondorioz.

Azken urteotako hemerroteketan gainbegiratu txiki bat eginez gero, ikusiko dugu nola desagertu diren, apurka-apurka, giza eskubideen diskurtsoa eta praktika, eta naturaren eskubideen urraketa egiturazko arrazoiengan nola ez den batere sakondu; funtsezko eragileak eta ardura garrantzitsuenak ezkutatu egin dira. Hori bera ikusi berri dugu 2021eko azaroan ere, Glasgowko (Eskozia) COP26 goi-bileran, ez da egon errepaso xeherik egin beharrik ere. Bertan ikusi genituen oso kutsatzaileak diren zenbait enpresa, problematika horri berari buruzko eztabaiden babesle gisa, esaterako. Klima-krisiari buruzko mahaiak, analisiak eta ondorioak kontrolatzen zituzten horrela, baita irtenbideak ere. Horrek guztiak betetzen zituen gero prentsako artikulua, editorialak eta zutabeak. Ez dezagun

## *Ezin da zalantzan jarri sistema nagusia, hots, kapitalismo neurrigabea dela klima-krisiaren, eskubideen krisiaren eta krisi zibilizatzailearen eragilea.*

ahaztu komunikabideek izan zuten rola ez dela interes ekonomiko jakin batzuen alde egindako lanaren erakusgarri bakarrik, baizik eta gizartearen parte-hartze politikoaren prozesu kritikoak indargabetzeko eginiko lanarena ere badela.

Modu horretan, gaur egun klima-krisiak sortutako erronka handiei aurre egiteko pausoak eman beharrean, kasurik onenean, prozesua asko motelduko da, eta sentituko dugu nola diskurtsoa den nagusi, naturaren kontrako garapen eredu horretan sortutako desoreka konpontzeko egin daitezkeen ekintzen aldean.

Zorionez, horren aurrean, gizarteak presioa egiteko dituen mugimenduen oihartzuna gero eta handiagoa ari da izaten. Guztion artean erronka eta mehatxu horiei aurre egiteko ideia gero eta indartsuagoa da, eta proposamen eta alternatiba berriak ari dira mahaigaineratzen, inposatu diguten eredua aldatzeko.

## Enpresa transnazionalak

Argi izan behar dugu eragile horiek menderatze ekonomiko eta sozialaren protagonista bihurtu direla, baita menderatze ideologikoarenak ere. Enpresa handi horiek mundu osoan zehar nahiko txertatuta daude, eta gure bizitzan erdigunean dauden sektore ekonomiko ia guztietan ageri dira: energiarenean, meatzaritzan, teknologikoan, komunikabideetan, nekazaritzako elikagaien sektorean, modan, aisialdian, farmazia sektorean, banketxeetan eta automobilgintzan. Beraiek dira nagusi mota guztietako produktuen ekoizpenean, komertzializazioan eta banaketan, baita aipatu berri ditugun sektoreetako eta beste askotako zerbitzu guztien eskaintzan ere.

Nola edo hala guk pentsatu behar duguna ere beraiek definitzen dute, gure dibertitzeko modua edo ezinegona zerk sortzen digun eta gure etorkizunean espero duguna zer den definitzen duten modu berean. Izan ere, beraiek kontrolatzen dituzte komunikabide masiboak, gure gizarte harremanak, ikusten ditugun telesail eta filmak eta sare sozialetan partekatzen dugun informazioa, baita irakurtzen dugun literatura gehiena eta aisialdian kontsumitzen ditugun modak ere.

## Giza eskubideak, naturaren eskubideak eta transnazionalak: ezinezko harremana

Aurreko guztia irakurri ondoren, ondoriozta daiteke enpresa transnazionalen eta giza zein naturaren eskubideak errespetatzearen arteko harremana, globalizazio neoliberalaren esparruan behintzat, gatazkatsua dela. Zaila dela. Eta, orain arte behintzat, bigarrenak ia beti galtzaile izan direla lehenengoen interesen mesedetan.

Horregatik, sistema dominatzailea eta horren eraldaketa berehala berrikusi beharra dago. Eraldaketaren lehen pausua gobernuen eta enpresa transnazionalen jardueren ikuspegia aldatzea izan beharko litzateke, bizitzaren jasangarritasuna lehentasun bihurtu eta hala aplikatu dadin. Ikuspegi horren xedea izan beharko litzateke pentsaraztea, balioztatzea eta onarraraztea gizakion bizitza gure inguruko baliabide naturalen mende dagoela, baita oinarritzko bizi-baldintzak betetzearen mende ere: ura, etxebizitza, osasuna, hezkuntza, oinarritzko hornidura energetikoa, zaintza-lanak... eta, beraz, giza bizitzaz hitz egiten dugunean planetako pertsona eta bizitza guztiei buruz hitz egiten dugula.

Hemendik aurrera lau kasu landuko ditugu. Lau kasu zehatz horietan ikusiko dugu naturaren eskubideen urraketaren eta giza eskubideen urraketaren artean harreman estua dagoela. Horretarako, Paraguai hartuko dugu adibide gisa. Soja oro har transgenikoaren agronegozioaren hedapena lurra agortzen ari da bertan. Horrek, aldi berean, bertako biztanleriaren desplazamendua eragiten du, eta beraien giza eskubideak behin eta berriz urratzen dira. Kolonbian, aldiz, duela zenbait hamarkadatik gaur arteko arazo bat aztertuko dugu, munduko aire libreko ikatz meategi handienetako batek eraginiko errealitate gordina, hain zuzen ere: ingurumenaren suntsipena eta heriotzak, kriminalizazioa eta betidanik Kolonbiako Guajiran bizi izan diren herrien desplazamendua. Guatemalaren kasuak naturarekiko, pertsonarekiko eta herriarekiko beste indarkeria-ardatz bat aurkeztu digu, urik eskuratu ezinarena; ikusiko dugu hainbat nazioarteko espaziotan energia garbia lortzeko baliabide jasangarritzat jotzen diren presa hidroelektrikoak eraikitzea ez dela oso jasangarria, ekosistemen oreka aintzat hartu gabe egiten bada, eta, are gutxiago, ur hori behar duten herrien bizitzak kontuan hartzen ez badira. Azkenik, Hondurasen kasuan ez dugu kasu zehatz bati buruz hitz egin izan nahi, proiektu handiz jositako herrialde

oso baten errealitateari buruz baizik. Proiektu horiek naturari kalteak eragiteaz gain, naturarekin urte askoan zehar armoniatsu bizi izan direnen eskubideak urratzen dituzte. Azken horiek dira, hain zuzen ere, gaur egun kriminalizatuta daudenak, beraien eskubideak defendatzeagatik. Beraiek dira betiko lurretan bizi ezin eta migratzaile-ilara izugarriak osatzen dituztenak.

Landu ditugun lau kasuetan, naturaren eskubideak eta giza eskubideak izango dira ildoak, baina ez ditugu ahaztuko transnazionalen, gobernuen eta nazioarteko erakundeen

ardurak zeintzuk diren. Horretaz landa, garrantzitsuena da sortu diren hainbat erresistentzia mota ere ikusiko ditugula: herrialde horietan zehar dauden gizarte eta komunitate mailako erresistentziak, indigenenak, feministak, nekazarienak eta auzo-erresistentziak. Mugimendu horien helburua da giza eskubideak eta naturarenak defendatu eta alternatibak sortzea. Hori da sumatzen dugun klimakrisia geldiarazteko esperantza; horixe da giza eskubideak eta herrien eskubideak onartzeaz gain, errespetatu daitezen eragiteko esperantza. Horixe da planeta hau berriz ere guztiontzako mundu hobea izan dadin modu bakarra.







Argazkia: Jesus González Pazos, Mugarik Gabe

# Paraguai: sojazko itsasoan ito beharrean

Hegoamerikako herrialde honetako soja gehienbat transgenikoaren historia laburra eta triste da, eta eredu neoliberal ezartzeari eta hark izan duen nagusitasunari erabat loturik dago. Historia horren lehen urratsak XX. mendeko 80 eta 90eko hamarkadetan gertatu ziren.

Hala ere, garrantzitsua da esatea ondoriorik latzenak, hots, datozen orrialde hauetan deskribatzen direnak, ez direla landaretik eratorritakoak bakarrik izan, landare hori landatu eta genetikoki eraldatzen duen agronegozio eredutik sortutakoak baizik. Izan ere, eredu hori soja transgenikoaren monolaborantzan oinarritzen da, eta horrez gain, lursail oso handietan agrotoxikoak eta makinak erabiltzen dira. Hots, merkataritza etekinei baino ez zaie garrantzirik ematen. Horrek guztiak bertako nekazarien eta herri indigenen bizi-baldintza duinen aurka egiten du eta segurtasuna eta elikadura burujabetza galtzen dute, baita luraren eta lurraldearen gaineko kontrola ere.

Gaur egungo egoera giza eskubideen eta naturaren urraketa etengabea bihurtu da, baina egoera horren aurrekariak 70eko hamarkadan hasi ziren: petrolioaren lehen krisialdian. Une hartan, sistema kapitalistak ikusi zuen energia-eredua eraldatu beharko zela etorkizun hurbilean, erregai fosilak agortzen ari ziren-eta.

Gauzak horrela, urte haietako hainbat ekimenetan, bioerregaiak deritzen horien sustapenerako zenbait ekimen egin ziren, batez ere garraioaren sektorea garatu eta hedatzeko helburuarekin.

Une hartatik aurrera, bioerregaiak “irtenbide berdea” bilakatu ziren, zeina ekologikoa eta jasangarria baitzen. Esparru horretan, beharrezkoa da bi erregai mota bereiztea: biodiesela, batetik; Afrikako palmondo, soja edo beste landare-olio batzuetatik eskuratzen da; bioetanola, bestetik. Kanabera, erremolatxa eta abarren azukreen hartidura alkoholikoetatik eratortzen da.

## Europa bultzaka

Europa da, bere osotasunean, mundu mailako biodiesel ekoizlerik handiena. Horrek ez du esan nahi, ordea, Europa denik mundu mailako soja edo palmondo ekoizlerik handiena.

Sojizazioranzko prozesu hori ulertzeko, garrantzitsua da jakitea erregai berrietaranzko bide horretan landare garrantzitsuena beti izan dela olio-palmondoa, eta Asia hego-ekialdean ekoitzi izan dela, gehienbat. Hala ere, azken hamarkada hauetan egoera guztiz aldatu da. Izan ere, inguru horretan egon diren deforestazio prozesu neurrigabeen kontra presio handia egin da, egoera alda zedin. Aldaketa horretan zerikusi handia izan dute Europako zenbait zuzentarauk, 2018an egin zen azkenak, energia berriztagarriei buruzkoak, esaterako.

Aipatu berri den Europar Batasunaren zuzentarauak gomendatzen du bioerregaiak sortzeko palmondoa erabili ordez soja erabiltzea. Gomendio hori ematen du, nahiz eta, esaterako, sojak sortzen dituen BEGen (Berotegi Efektuko Gas) isuriak fosilenak baino bi aldiz handiagoak izan. Beraz, ez dirudi palmondoaren (fosilek baino hiru aldiz gehiago isurtzen du) ordez soja erabiltzea bereziki onuragarria denik.

“Edozein hazkuntzak eragingo lituzke hondamendiak gizartean eta ingurumenean soja hazi den abiaduran haziko balitz: 50 urtetan ekoizpena hamar aldiz hazi da (27 milioi tonatik 269 milioira). Hainbeste hazi izanak eragin zuen milioi bat kilometro karratu gehiago behar izatea, hots, Frantzia, Alemania, Belgika eta Herbehereak elkartuta adinako eremua”<sup>2</sup>.

Horregatik, arazo horri aurre egiteko modua da Europar Batasunak elikagaien laborantzatik eratorritako bioerregaiak kontsumitzeari berehala uztea, palmondotik eta sojatik eratorritakoak bereziki. Hala, deforestazioak jarrai dezan saihestuko litzateke, baita bioaniztasun gehiago galtzea, lurraren erabileran aldaketa sakonak egitea, biztanleria gehiagok migratu behar izatea eta ustez ordeztu nahi den dieselak isurtzen duen baino CO<sub>2</sub> gehiago isurtzea.

## Lurraren negozioa

Agronegozia: neurri handiko negozio eredu, enpresa transnazional gutxi batzuek kontrolatzen dutena, eta hazien monolaborantza estentsiboan eta intentsiboan oinarritzen dena, transgenikoak orokorrean. Eredu horretan, sargai kimiko industrialak gehiegikeriaz erabiltzeaz gain, teknologia astuna erabili ohi da, eta erregai fosilen zein beste mota batzuetako erregaien kontsumoa altua izan ohi da.

Ondorioak: deforestazioa kontrolik gabe hazten da, eta, ondorioz, lurren erabilera aldatu egiten da; horrek guztiak, aldi berean, lurren degradazioa eta lur horien zein iturri hidrikoen eta, orokorrean, bioaniztasunaren galera dakar. Beste modu batean esanda, nekazariak egiten duten nekazaritza suntsitzen du. Eta, elikadura aniztasuna galdu egiten denez, komunitate horiek pobretu egiten dira eta beraien lurretatik bota egiten dituzte. Gauza bera gertatzen zaie herri indigenei. Laburbilduz: eredu hori estraktibista da, ingurumenari dagokionez

jasangaitza eta gizarteari dagokionez baztertua.

Horregatik guztiagatik, Paraguairen kasua paradigmaticoa da, aukeran dauden bi eredu arteko talka dagoelako: agronegozia eta nekazarien zein indigenen nekazaritzaren artekoa.

Lehenak, nekazaritza eta elikadura salgai soil bihurtzen du, eta helburua da ahalik eta etekin handiena poltsikoratzea. Gainera, enpresa transnazionalak eta tokiko oligarkiak kontrolatzen dute, guztiak ere eredu neoliberalaren morroi. Une oro ikusten da eredu hori ez dela jasangarria ingurumenaren ikuspuntutik erreparatuz gero.

Bigarrenak, aldiz, elikagai osasungarrien ekoizpena berreskuratu eta mantentzea du helburu, elikadura burujabetza bermatu dadin. Hori guztia, nekazariak eta indigenek beraien lurraren eta lurraldearen gaineko eskubide guztiak eta bizitza duina izateko eskubidea onartuak dituzten eta errespetatzen diren eredu baten barruan. Nekazaritzaren historiak erakutsi du eredu hori oso jasangarria dela eta, ondorioz, klima-krisiaren aurkako ekarpen handia ere bada.

*Bioerregaiak  
erregai fosilen  
“irtenbide berdea”  
bilakatzen ari  
dira, ekologikoak  
eta jasangarriak  
baitira. Egia ote  
da hori?*

<sup>2</sup> Villadiego, Laura; Castro, Nazareth (2020). “Soja ¿la nueva palma de los biocombustibles?”. Ecologistas en Acción. (10. or.) <https://www.ecologistasenaccion.org/wp-content/uploads/2020/06/informe-soja.pdf>



## Paraguai eta Sojaren Errepublika Batua

Paraguai, Argentina, Brasil eta Uruguai zein Boliviak osatzen dute, eta ondo datorkion izen hori Syngentaren, ChemChina-Syngenta gaur egun, publizitate kanpaina baten ondorioz ezarri zitzaion (2003), zeina agronegozioaren transnazional handienetako bat baita.

Kalkulatzen da fikziozko errepublika horren lurretan ekoizten dela, gaur egun, munduko sojaren % 50a. Argentinak eta Brasilek, Estatu Batuekin batera, mundu mailako ekoizpenaren % 80 kontrolatzen dute. Hiru herrialde horiek eta Paraguaik osatzen dute soja zein soja-olio ekoizleen talde nagusia.

Deskribatu berri denaren oso antzeko lurraldea da Guarani Akuiferoa, ehunka metro beherago badago ere. Paraguai ia osoa, Argentina iparraldea, Uruguai gehiena eta Brasil hegoaldea hartzen ditu, eta ur gezaren lurpeko munduko hirugarren erreserba handiena da. Bada, gaur egun, uste da erreserba horretatik ateratzen den uraren % 69 inguru erabiltzen dela nekazaritza-industrian eta, bereziki, sojaren monolaborantzian. Ikerketa zenbaitek jada aurkitu dituzte glifosato herbizida arriskutsuaren hondakinak munduko ur erreserba horretako zenbait karga eremutan. Horrek, noski, erreserbaren etorkizunari buruzko kezka bat gehiago sortzen du, lehen gutxi bazeuden.

Bestalde, Europar Batasuna da, Txinaren ondoren, Hego Amerikan ekoizten den sojaren bigarren erosle handiena. Komenigarria da gogoraraztea inportatzen den sojaren % 13a baino ez dela lurralde deforestatuetan ekoizten ez dena, eta gainera, ehuneko oso handi bat dela soja transgenikoa. "London School of Economicsek detektatu zuen Brasilgo isurien % 55a baino gehiago dela lurraren erabilera aldaketarengatik, eta Paraguairen isurien % 70. Izan ere, baso izatetik soja-zelai edo abeltzaintza zelai izatera igarotzen dira lurrak, eta hori da berotegi-efektuko gasek gora egin izanaren arrazoi nagusienetakoa"<sup>3</sup>.

Modu horretan, Europar Batasunaren kezka "berdeak"

zentzua galtzen du bere politikek eragindako ondorio eta problematika larriei ezikusiarrena egiten dienean. Adibidez, merkataritza negoziazio prozesuetan natura eta giza eskubideak babesteko bermeak ezartzeari eta garapen jasangarria sustatzen duten klausulak ezartzeari iskin egitea ez dator bat balizko ingurumenaren aldeko diskurtso eta kezkekin. Naturarekiko ardura hegoaldeko herrialdeetan sustatzen den negozio eta ekoizpen ereduaren aintzat hartu behar da, eta horretarako behar diren zuzentarau, lege edo merkataritza-hitzarmenak ezarri behar dira.

Bioerregaiak ekoiztea ez da nahikoa. Aipatu dugun nekazaritza industrialeko ereduak dituen ondorioen ardura hartu beharra dago, ez baitu kontuan hartzen herrialde horietan klima-krisiaren errealitatea zein den, ezta herri nekazarien eta indigenen giza eskubide kolektiboak eta indibidualak urratzen dituela ere.

*Agronegozio  
eredua:  
estraktibista,  
ingurumenari  
dagokionez  
jasangaitza eta  
gizarteari  
dagokionez  
baxtertzailea.*

## Nor da nor?

Agrokimikoen kontrol korporatibo osoaren % 75a lau transnazional handiren esku dago: Bayer (Mont-de-Marsan), Corteva (Dow-Dupont), ChenChina (Syngenta - ChenChina) eta BASF.

## Paraguai, gaitzik gabeko lurra

Paraguairen kasuan, aberastasunaren kontzentrazioak zerikusi handia du lurraren kontzentrazioarekin eta mugarik gabeko agronegozioarekin, nekazariak eta indigenak etengabe lekualdatzearekin, naturaren eskubideen eta giza eskubideen etengabeko urraketarekin.

Landu daitekeen lurraren % 80a, gaur egunean, soja da Paraguain; Paraguaiko baso atlantikoa zenaren % 85a deforestatu egin du agronegozioaren garapenak.

Aldi berean, nekazaritza industrialak gelditu gabe aurrera darrai. Pizgarriak eta kreditu bigunak, salbuespenezko zergak eta merkataritza hitzarmenak eskaintzen zaizkio etengabe. Bitartean, nekazariak eta herri indigenek ez dute inolako laguntzarik jasotzen. Politika publikoek ez dute

<sup>3</sup> Ghiotto, Luciana; Echaide, Javier (2019) Analysis of the agreement between the European Union and the Mercosur. The Greens/EFA and Powershift. Berlin, Buenos Aires, Brusela

beraien ekoizpena sustatzen, ez diete aukerarik ematen betidanik beraienak izan diren lurretan baldintza duinetan bizitzeko. Herrialdeari beraiek ematen diote jaten bizitza independentea izan duten azken 200 urteotan. Gaur egun, ordea, gero eta pobregoak dira, kriminalizatuta daude, eta hirietako auzo pobreenetara desplazatzen dituzte, ez badute nazioartera emigratzen.

2020ko azken txostenek diote agronegozioak bost milioi hektarea baino gehiago hartzen dituela jada Paraguain (5.402.317, 2019an). Hori ekoizten ari den luraren % 94,20 da. Bestalde, nekazaritza tradizionalak % 5,98 besterik ez dauka, hots, 300 mila hektarea baino zertxobait gehiago (343.739, 2019an).

Gauzak horrela, deforestazioak aurrera darrai. 1950ean 9 milioi hektarea baso zeuden, gutxi gora-behera. 2004an 1,3 milioi baino ez, eta gutxitzen. Gaur egungo kalkulu optimistek diote Paraguaiko jatorrizko basoen % 13 baino ez dela gelditzen, eta gelditzen den hori degradatua eta etenda dagoela.

Deforestazioa eta gizarte desberdintasuna areagotzea. Bi hanka horien gainean eusten da lau ondorio larri hauek dituen eredu:

- Ingurumenarekikoak: lurren suntsiketa, agrotoxikoen erabilera neurrigabea (2019an 58.568 t. agrokimiko inportatu ziren), lurra agortzea (nutrienteak desagertzea), kutsadura;
- Gizartearekikoak: herri nekazariak eta indigenak desplazatzea (900 mila pertsona azken hamar urteotan) hirien periferietara, edo beste herrialde batzuetara; bizi-baldintzen galera. Landa eremuan bizi diren hiru paraguayarretik bat pobrezia larriko egoeran bizi da.
- Ekonomikoak: agronegozioa ez da errentagarria herrialdearentzat, nahiz eta eliteentzako hala izan. Enpleguaren % 15a sortzen du, eta enplegu prekarioa da, lan baldintzak minimoak dira; BPGren % 25a suposatzen duen arren, diru-sarrerara fiskala ez da % 2a baino.
- Politikoak: elite politikoak eta ekonomikoak elkarren artean babesten dira, eta ustelkeria hedatu egin da eta politika publikoak agronegozioaren aldekoak dira. Nekazarien eta indigenen nekazaritzak ez du babes politikorik.



Argazkia: Jesus González Pazos, Mugarik Gabe

## Lurra defendatzeagatik kriminalizatuak

Nekazariak eta indigenak lurra eta lurraldea defendatzeko protestak egiten dituzte, eta gizarteko protesten kontrako indarkeriaren % 70ak zuzeneko lotura du eliteek borroka hori desmobilizatzeko, kriminalizatzeko eta erreprimitzeko duten interesarekin.

Paraguaiko biztanleriaren % 2 inguru da indigena (7 milioitik 115.000 lagun inguru, 19 herritakoak), eta nekazariarekin batera gizarte erresistentzia gogorra egiten dute, beraien eta naturaren eskubideen defentsan.

Adierazi zen 2019ko abuztuaren eta 2020koaren arteko urtebeteko epe horretan izan ziren gizarteko protesten % 48 gobernuaren ekoizpen eta laguntza politiken kontrakoak izan zirela, % 45 lurren eta lurraldeen erreklamazioak eta % 7 sojaren agronegozioaren aurkakoak.

Paraguain, agronegozioaren bultzadarik handiena Horacio Cartesen gobernuaren eskutik iritsi zen, 2013 eta 2018 artean, Fernando Lugo presidentea estatu-kolpe baten bidez gobernutik kendu ondoren (2012). Aldi berean iritsi zen kriminalizazio prozesua ere, izan gizarteko protestaren zein nekazarien eta herri indigenen borrokaren kontrakoa. Protestek gora egin zuten, eta errotu egin zen guztia: gizarteko desberdintasunak areagotzea, nekazariak eta indigenak beraien lurrak eta lurraldeak galdu eta hirietako periferietara joan beharra, nekazaritza tradizionala apurka-apurka desagertzen joatea, ingurumenaren narriadura eta, azken finean, bizi-baldintzak okertzea eta eskubideak galtzea. Bueltan jaso zena, protesta kriminalizatzeaz gain, mobilizatzen ziren sektoreen aurkako errepresioa izan zen.

## Emakumeak eta agronegozioa

Nekazaritza industrialeko prozesuak txertatzeak nekazaritza eta ingurumena suntsitzea ekarri zuen. Emakumeak elikagaien ekoizpenetik kanporatu egin zituzten, baita lurra lantzetik ere. Lanaren banaketa sexuala sendotu egin zen, ondorioz. Emakumeak bi eremutan lan egitera behartu zituzten, ia eskusiboki, nahiz eta aurretik ere horretan aritzen ziren: zaintza lanak eta etxeko lanak. Egoera horrek, besteak beste, emakumeek autonomia

galtzea eragin zuen, baita ezagutzen galera eta subjektu politiko gisa zuten indarra galtzea ere, zeinak aldi berean eskubideak murriztea ekarri zuen. Esan liteke, hortaz, lotura zuzena dagoela agronegozioaren eta emakumeen eskubideen galeraren artean, eta eredu horrek emakumeen mendekotasun egoera okertzen duela. Patriarkatua indartu egiten da.

Hala ere, ezin esan gabe utzi emakumeek antolatutako mugimenduek beraien ahalduzko prozesuetan aurrera pausu handiak lortu dituztela. Hala, badira emakumeak lider gisa dituzten lurrak eta lurraldeak berreskuratzearen aldeko erresistentzia mugimendu gogorak. Orobat, indarkeria matxistei aurre egiten ari dira, nola erakunde eta komunitateen barruan, hala beraien eskubideen aurka egiten duen estatuaren eta beste agente ekonomiko eta politiko batzuen aurrean; sojizazioaren eta agrotoxikoen aurkako borroken buru dira, eta nekazaritza ekologikoko

alternatibak jartzen dituzte martxan. Horrez gain, feminismoen bidez indartzen dituzte naturaren, lurraldearen, bizitzaren eta ekitatearen defentsa-prozesuak.

*laneta salbatzeko  
batzarrek ez dute  
ezertarako balio  
azpiegitura  
handientzako  
inbertsioak  
baldintzatzen  
dituzten neurririk  
hartzen ez bada  
eta soilik klima-  
krisia eragin  
duten enpresen  
jarduna berdez  
margotzeko  
erabiltzen badira.*



## Indigenen eta nekazarien eskariak eta aurrerapenak

Honako hau da proposamen nagusia: nekazaritza ekologikoa oinarri duen nekazaritza eta abeltzaintzako eredu bat eraikitzea, agronegozioaren alternatiba gisa eta elikadura burujabetzaren esparruan.

Helburu horren ildotik, honako lau ardatz hauetan oinarritzen dira politika publikoak:

- Eskubidea luraren gain, lurra eskuratzeari dagokionez, bai eta nekazarien kokalekuak erregularizatu eta legeztatzeari dagokionez ere;
- Politika publikoak, nekazarien nekazaritza sustatu dezaten, ekoizpena suspertzea, zorrak barkatzea, dirulaguntzak ematea, ekoizpenarentzako merkatuak aurkitzea, haziak babestea eta nekazaritza ekologikoa sustatzea gisako neurrien bidez;
- Azpiegiturak eta komunitateen baldintzak hobetzea. Horretarako, garrantzi berezia ematea etxebizitza duinei eta oinarritzko ekipamendu eta zerbitzuei.
- Giza eskubideak errespetatzea, kolektiboak zein indibidualak, bai eta naturaren eskubideak eta generoen arteko ekitatea ere.

Eskatzen dena honako hau da, labur esanda: “Sojaren Errepublika Batua” izateari uztea, transnazional handi horietako baten publizitate kanpainari buelta eman eta “Eskubideak eta Bizitza Duina duten Herri Libreen Lurralde” bihurtzeko.



Argazkia: Jesus González Pazos, Mugarik Gabe



Argazkia: Luís Misael Socarras, Wayuu IIPUANA

# Kolonbia, bizitza belzten duen ikatza

Kolonbiako Guajira eskualdeko El Cerrejon da munduko aire zabaleko ikatz-meategi handienetako bat. Meategi horren eraginez Guajiran ez dago, eguzkiaz gain, distira egiten duen beste ezer, ikatzaren hauts kutsakorra dena beltzez estaltzen ari baita inguru hartan.

“Lasaitasuna lortu genuenean iritsi zen ekaitza, enpresa. Multinazionalak zaintzaileak, poliziak eta armada zituen bere alde: atxiloketa arbitrarioak eta legez kanpoko atxikipenak egiten zituzten, eta ehiza eta arrantza debekatu zizkiguten. Kutsadurak gure laboreei eragin eta lehortu egin ziren, ikatzaren hautsaren eraginez”<sup>4</sup>.

1973. urtea seinalatua izan zen herrialde garatuen munduarentzat, petrolioaren krisia iritsi zen. Egoera horrek ikatzaren ustiaketa birsortzea eragin zuen. Ikatza estrategiko bihurtu zen, ikatzaren errekontza kalorikotik energia elektrikoa eskuratzen zen zentral termikoetan, eta mundu osoko herrialdeetan hedatu ziren zentral horiek.

El Cerrejoni dagokionez, zenbait urte geroago eredu neoliberal txertatu eta meategia pribatizatu ze, beste hainbat sektoretan eta herrialdeetan gertatu zen gisan. Hala, 2000. urtean estatuaren partizipazioa Glencore transnazional suitzarrari saldu zitzaion. 2002. urtean Exxon Mobilek bere zatia saldu zuen (beste % 50a), eta halaxe sortu zen Cerrejongo Ikatzen Partzuergo Mugatua. Partzuergo horretan daude, Glencore gain, BHP Billiton (Australia) eta Anglo American (Hegoafrika). Kapital britainiarra da nagusi bietan.

Hala, meategia hedatu egin da azken 35 urteotan, eta eskuragarri dauden azken datuen arabera, 108.000 tona inguru ateratzen ditu egunean. Horretarako, 30 milioi ur litro inguru kontsumitzen ditu. Egunean. Meategiak berak bakarrik 69.000 hektarea ditu. Puerto Bolívarrek, ikatzaren karga-terminalak, beste 38.000. Hori gutxi balitz, 150 kilometroko trenbide batek erdi-erdi gurutzatzen du Guajira departamentua, eta trafiko handia izaten da asteko zazpi egunez, gainera, 120 bagoiko bederatzi konboi egunean.

<sup>4</sup> “La gigantesca mina de carbón de Cerrejón, denunciada por atentado contra derechos humanos y ambientales”. 2021/02/06 <https://alicenews.ces.uc.pt/?lang=1&id=32629>



## Baina, nor da nor?

Guajira departamentua, oro har, Wayuu izeneko herriaren lurraldea denez, garrantzitsua da gogoraraztea lurraldearen kontzeptua bera, batetik, eta ingurumenari eta natur baliabideei buruzko ideiak, bestetik, ez direla bat etorri ohi herri indigenen eta enpresa transnazionalen ikuspegiaren artean. Are gehiago, esan daiteke guztiz aurkakoak direla. Azken horiek “normalean ez dute alde aurretik egon izan den antolatze modurik onartzen, eta pertsonak beraien modura antolatu nahi izaten dituzte, beraien nagusitasuna bermatzeko. Hots, lurraldea negozio bat besterik ez da haientzat, aberastasuna pilatzeko modu bat”<sup>5</sup>.

Gainera, ezin ahaztu daiteke gaur egun El Cerrejon kontrolatzen duten hiru enpresek mundu osoan zehar urratu izan dituztela laneko eskubideak eta ingurumenaren eskubideak. Hala erakusten du beraien historiak. Eta, hori gutxi balitz, eroskeria eta ustelkeria zein zergen iheseko kasuak izan dituzte, eta zenbait diktadurarekin harreman estua izan dute.

Bada, hainbat ikerketa eta azterketaren arabera, Kolonbian publikoa zena pribatizatze prozesu horretan, meatze horren eragiketa-emakidak ustelkeria-eskandaluz beterik egon dira, hasi 80ko hamarkada hasieratik eta gaur egunera arte. Oro har, kalkuluen arabera, Cerrejongo ikatz-meatzeen entrega zehaztugabeak 10.500 milioi dolar baino gehiagoko galerak eragin ditu (Kolonbiako kanpo-zorren ia erdia).

Abantailak murrizteak eta lege erreformen eraginez transnazionalak gutxieneko zerga-ordainketa egin ahal izateak eragiten du irabazien ehuneko handiena Kolonbiatik kanpora traba handirik gabe ateratzea eta enpresa horien kontuetako emaitza positiboak loditzen jarraitzea. El Cerrejonen kasuan, gauza jakina da 229 zerga-kenkari izan dituela partzuergoko enpresak, eta horren ondorioz, adibidez, 2013 eta 2014 urteen artean ez zuela peso bat bera ere ordaindu errentaren gaineko zergatan, 700 milioi dolar baino gehiagoko irabaziak izan arren. 2017an 1.699 milioi dolar eskuratu zituen eta 112,5 milioi besterik ez zituen ordaindu, hots, irabazien % 7. Datu

horiek eta beste batzuek adierazten dute, nahiz eta sarri esan izan den meatzaritza Kolonbiarentzat sektore estrategikoa dela, errealitatean ez dela hain garrantzitsua, BPGren % 2a baino ez da-eta. Herrialdearen garapenean oso bazterreko rola dauka, beraz, sektoreak pilatu eta transnazionalak irabazten duten diru kopuru izugarriarekin alderatuz gero.

Txosten hau egiterakoan, El Cerrejon kontrolatzen duten hiru enpresek adierazi dute (2020) ikatzaren meatzaritzan dauzkaten aktibo guztiak saltzeko asmoa. Ez Kolonbiakoak

bakarrik, mundu osokoak baizik. Dirudenez, klima-aldaketaren aurkako borrokari beraien ekarpena egin nahi diote, “kezka berde” bat sartu baitzaie. Errealitateak oso bestelako datuak ematen ditu ordea, eta ikatzaren ustiapenaren negozioa galtzen ari dela dirudi, besteak beste, Europa deskarbonizazio prozesuan dagoelako.

*Ikatza-  
ren  
erreketa da  
munduko klima  
aldaketaren  
arrazoi nagusia,  
eta eragin larria  
du gure  
osasunean.*

**Eta giza  
eskubideak eta  
lurrarenak,  
desagertu egin al  
dira?**

“Egiaztatu egin da eredu horrek eragina duela eta betidanik izan duela lurraldeetako ingurumenean eta gizartean. Horrez gain, ikusi da, eredu txertatzen den inguruetako biztanleen bizi-baldintzek okerrera egiten dutela, komunitateen bizitza duinari, antolaketa, mobilizazioari eta parte-hartzeari lotutako hainbat eta hainbat oinarritzko eskubide masiboki eta sistematikoki urratzen baitira, bai indibidualak bai kolektiboak; ondorio horiek bereziki eragiten dute emakumeen eskubideetan”<sup>6</sup>. Aipu luze horrek argi eta garbi laburtzen eta deskribatzen du El Cerrejon ustiatzen duen partzuergo transnazionalak propaganda kanpaina handien bidez ikusezin bihurtu nahi duena.

Guajira departamentuan azken hamarkadotan izandako aldaketa zenbaterainokoa izan den ongi adierazten duen datua da honakoa: 1960an BPGaren % 40a nekazaritzatik lortzen zen, 2018an, aldiz, % 5 baino ez zuen adierazten nekazaritzaren sektoreak.

<sup>5</sup> CENSAT-Agua Viva, Amigos de la Tierra-Colombia (2010). “Conflictos socio-ambientales por la extracción minera en Colombia: casos de la inversión británica”. Bogota, Kolonbia (28-29. or.)

<sup>6</sup> Alboan Fundazioa eta CINEP/PPP (2019) “Minería de oro y comunidades locales del Sur de Córdoba en Colombia, el caso de la mina El Alacrán”. Bilbo. (6. or.)

Aldiz, nahiz eta ikatzaren ustiapienak izugarritzko irabaziak sortu dituen, Guajira Kolonbiako departamentuen artetik bigarren pobreena da. Hemen, biztanleriaren % 52,5 da pobrea. Herrialde osoko batez bestekoa % 26,9koa da. Pobrezia larrian bizi direnak, aldiz % 26,5 dira hemen, % 7,4 herrialde osoan. Gainera, beharrezkoa da datuok sakonago aztertzea. Izan ere, landa eremuari erreparatzen badiogu, pobrezia indizea % 90 baino altuagoa da.

Orokorrean, esan daiteke urtean 30 milioi tona ikatz ateratzek utzitako ondorio nabarmenenak lurrean eginiko indusketa izugarriak direla, zeintzuek, sarritan hamarnaka metro sakon diren zuloak uzten baitituzte. Hori gutxi balitz, oihan lehor tropikalaren deforestazioa eta erreka zein ibaiak desagertzea gehitu behar zaio hondamendiari, eta esan gabe doa bizitza ematen diotela bertako biztanle eta animaliei. Aireari dagokionez, ez da ahaztu behar ikatzaren hautsak eta gasek kutsatu egiten dutela eta osasunean kalte larriak eragiten dizkietela inguruko bizilagunei. Azkenik, beste elementu garrantzitsu bat aipatu beharko litzateke, gizartean tentsio handia sortu izan baitu eta giza eskubideak urratzen baititu: iruzurren edo indarkeriaren bidez jendea desplazatzea, meategiak behar duen tokia izan dezan.

Transnazionalek halako kontrolik gabeko estraktibismo prozesuak egin ohi dituzte, eta prozesu horietan emaitzak beste ezer ez da kontuan hartzen, ez axola pertsonen bizitzaren eta naturaren jasangarritasuna. Bada, prozesu horien artetik gehientsuenek ondorio zerrenda ezagun bat izaten dute, eta honako hauek dira guk hasi dugun zerrenda osatzeko falta zaizkigunak: lurraren erabilera aldaketak, elikadura-burujabetza eta lan-iturriak galtzea, desnutrizioa, pobretzea, kriminalitatea areagotzea eta gizarte, kultura eta politika banatzea.

## Meatzaritzaren garapenean agindutakoak eta errealitatea

Kolonbiako gobernuak eta enpresa transnazionalek agindu zuten, labur esanda, enpleguak sortuko zirela, meatzaritza arduratsua eta jasangarria egingo zela eta Kolonbiaren aurrerapena etengabea izango zela, baina...

1975ean tokiko ekonomiaren % 57,9 merkataritzak osatzen

zuen. 2010ean % 1,7 baino ez zen merkataritza. Horrek esan nahi du azken hamarkadotan 40.000 enplegu inguru galdu direla Guajiran, nahiz eta meatzaritzak enplegua sortu. Ondorioz, biztanleria pobretu egin da, orokorrean, eta departamentuetako hirietarantz edo Kolonbiako zein kanpoko beste hiri handietarantz emigratu behar izan dute herritar askok.

Lan eremu berean El Cerrejonek 12.000 enplegu inguru ditu, horien erdiak azpikontratutako 300 enpresatako langileak dira. Horrek zera esan nahi du: azken horiek, El Cerrejonentzat zuzenean lan egiten dutenek egiten duten lan bera egiten arren, soldata baxuagoa poltsikoratzen dutela (-% 30), egunean 12 orduz lan eginda. Aipatu berri ditugun horientzat, sindikatueta parte hartzea ia debekatuta dago, eta beraz, laneko eskubide gutxiago izaten dute. Osasunari dagokionez, 800 eritasun inguru atzeman dira, arnas eritasunak gehienak, eta osasun-arreta eskasa da.

Ingurumenean duen eraginari erreparatuz gero, enpresak lau haizeetara aldarrikatzen duen arren baso-berritze programa

zabal bat duela martxan, errealitateak dio desagertutako baso autoktonoaren 12.000 hektareetatik % 10 baino ez dela berreskuratu. Halaber, lehortutako 17 erreka eta kalteak jasan dituzten beste 30 atzemateaz gain, Rancheria ibaiak, hots, departamentuko garrantzitsuenak, kalte

*Ezin uka daiteke  
horren guztiaren  
ardura  
transnazionalean,  
meatzaritza-  
enpresena eta  
energia-enpresena  
dela, baina baita  
bata bestearen  
atzetik etorri  
diren Kolonbiako  
eta Europako  
gobernuena ere,  
halako jarduketak  
babestu eta  
elikatu egin  
dituzte-eta.*

larriak jasan dituela ikusi da, besteak beste, goi-ibarrean meategiarentzako presa bat eraiki delako. Ibai horren arroan, zeinak 50.000 hektarea inguru baititu, biltzen zen garai bateko nekazaritza eta abeltzaintza sistemaren zati handi bat.

Gizarteari dagokionez, pobrezia indizeak hedatu eta sakontzeaz gain, azpimarratu beharra dago zenbait lurralde hustu eta bertan bizi ziren komunitateak beraien lurretatik botatzeko prozesuak egin direla, Wayuu eta afrikar jatorriko komunitateen kasuak izan dira nabarmenenak. Prozesu horiek pixkanaka gauzatu dira, meategia martxan egon den urteetan. Gauzak horrela, jasota dago 35 komunitate desalojatu direla, eta horretarako hainbat mekanismo erabili dira: batzuetan lursailak erosi egin dituzte, legez kanpoko erosketen bidez, orokorrean; beste batzuetan presioa egin dute (sarrerak oztopatu, ur emaria moztu, etab.), eta beste zenbaitetan zuzenean indarkeria erabili dute, poliziaren edo enpresaren segurtasun zerbitzu pribatuen bidez.

Bestalde, ukaezina da identitate indigena eraikitzeke moduari buruz ezjakintasuna eta mespretxua zabaldu egin dela, nahiz eta Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LNE) 169. hitzarmenean onartua egon. Hala, beste oinarritzko eskubide batzuk ere urratu egiten dira, edozein herritako balio eta praktika sozial, kultural, erlijioso eta espiritualak babesteko eskubidea, esaterako. Horrez gain, identitate indigenarekiko mespretxuak berekin dakar beraien instituzio eta prozedura propioen bidez kontsultak egiteko eskubidea ez ezagutzea. Horrela azal daiteke, “Cerrejon, meatzaritza arduratsua” izeneko proiektuak inoiz ez onartu izana Wayuu herriak meatzaritza-proiektu honi buruz duen

aurretiazko kontsulta aske eta informatua egiteko eskubidea, nahiz eta komunitateekiko errespetua izateko konpromisoa autoaldarrikatuta izan.

## Wayuu herria, Wayuu emakumeak eta meatzaritza

Oro har, esan daiteke lurralde indigenetako estraktibismoa eredu neoliberallean eta logika kolonialean oinarritzen dela, eta beraz, arrazista dela eta indigenen ezagutza kultural, sozial eta politikoak gutxietaz gain, herri horien eskubideak sistematikoki urratzen dituela. Era berean, patriarkatuaren logika darabil eta inposatzen du. Azken horri dagokionez, meategietan ikus daiteke lurraldea maskulinizatu egiten dela, progresiboki eta nahiko azkar, eta horrek emakumeen eskubide eta prozesuetan negatiboki eragiten duela.

Aipatu berri den horrek Wayuu herriaren ezaugarri bereizgarri baten aurka egiten du, matrilinealitatearen aurka, hain zuzen. Izan ere, emakumeek familia-talde handia gidatu eta antolatzen dute, eta politikoki aktiboak dira. Hots, paper garrantzitsua dute gizartean, eta emakumezko autoritateak dira espazio publikoetan herria ordezkatzten dutenak.

Zenbait hamarkadaz ikatza erauzten aritu izanak zuzeneko ondorioak izan ditu Wayuu herriarengan: emakumeen estatusa ahuldu da, bizitza prekarioagoa da, familia barruko indarkeria, sexu-indarkeria eta prostituzioa areagotu dira, esaterako. Baina, horrez gain, Wayuu herriaren oinarritzko zenbait oinarritzko eskubide ere urratu egin dira,



Argazkia: Javier Arjona

osasunerako eta parte-hartze politikorako eskubidea, adibidez, eta tradiziozko autoritateak ordezkatu egin dira eta giza eskubideen defendatzaileak kriminalizatu dira.

## Kolonia ikaztua, estatu espainiarra ikatzez hustua

Gaur egun inork ez du zalantzan jartzen, ikatzaren erreketa eta beste zenbait erregai fosilen erabilera edo gehiegizko erabilera (petrolio eta gasa) direla munduko klima-aldaketaren arrazoi nagusia eta, horrez gain, pertsonen osasunean arazo larriak sortzen dituztela. Era berean, azkenengo COPetan azpimarratu da krisi-klimatikoa giza eskubideen krisia ere badela, eta hala adierazten da argitalpen honetan ere.

Gauzak horrela, nahiz eta azken urteotako deskarbonizazio prozesuan aurrerapen garrantzitsuak egin diren, ezin ahaztu daiteke Europa eta sektore horretan erraldoiak diren Estatu Batuak, Errusia edo Txina milioika tona ikatz erretzen egon direla, eta, beraz, munduak egun bizi duen klima-krisiaren erantzule direla. Erantzukizun hori ezin da saihestu kontaminatzeari uztearekin bakarrik, deskutsatze prozesu eraginkorrek behar dira, baita bizi dugun klima-krisia bihurtzea ere.

Estatu espainiarrean, duela ez urte asko, 2018an, hain zuzen, ekoizpen elektrikoaren % 14,1 lortzen zen ikatza erretzearen bidez. Erreketek ia 40 milioi tona CO<sub>2</sub> sortzen zituzten, eta dena isurtzen zen atmosferara. Esanguratsua da, baina, datu askoren arabera, Espainia herrialde kutsatzaileenetakoa zen, Parisko Klimaren Aldeko Akordioa (2015) eta antzeko beste zenbait nazioarteko tresna irmotu ziren arte. Esaterako, 1990 eta 2017 artean Espainia izan zen, Europako herrialdeen artean, gas isuriak gehien areagotu zituenak. Horren arrazoia zentral termikoetan erretzen zen ikatza zen (2019an oraindik 16 zentral termiko zeuden estatuan, nahiz eta 2020ko uztailerako hiru besterik ez ziren gelditzen martxan, lau denetara, baina azken horrek ekoizpen mugatua zeukan). 2017an Espainia izan zen, mundu mailan, ikatzaren erabileraren ehunekoa gehien

handitu zuena. Hori gertatzen zen bitartean Espainiako ikatz-meategiak ixten ari ziren, eta inportazioak hazi egin ziren, esaterako, Errusia, Indonesia, Hegoafrika eta Kolonbiatik. Horiek ziren munduko ikatz ekoizlerik handienak.

Horren guztiaren ardura zuten enpresen artean, bost ziren nagusienak: Endesa, Iberdrola, EDP, Viesgo eta Naturgy. Guztiak dira ezagunak beraien marketin eta publizitate kanpainengatik. Izan ere, azken urteotan beraien burua klima aldaketaren aurkako kanpainaren banderadun gisa erakusten dute ia-ia, energia berdea deritzoten horrek indarra irabazi ahala.

Nazio Batuen printzipio gidarien artean bigarren zutabeak ezartzen du enpresek giza eskubideak errespetatzeko ardura dutela, eta Enpresen eta Giza Eskubideen Ekintza Plan Nazionalan (2017) onartu zuen hori Espainiako estatuak. Hala ere, printzipio hori saihesteko askotariko moduak, desenkusak eta aitzakiak daude. Berez, ardura horren estaldurapean daude enpresa horiek, baita beraien harreman komertzialen bidez eskaintzen dituzten eragiketak, produktuak edo zerbitzuak ere, eta beraien ardura bihurtzen da, beraz, filialek, azpikontratatuak enpresek edo harremanak dituzten beste enpresa batzuek egindako giza eskubideen urraketetan laguntzarik ez ematea, haiek egindako urraketek ezikusiarrena ez egitea eta egin ditzaketen urraketak aurreikustea. Halako zerbait gertatzen da, esaterako, Espainiako energia enpresek El Cerrejongo ikatza erosteko merkataritza-harremanak izaten dituztenean.


Esku artean dugun kasuan, El Cerrejongo ikatza erauzi eta Espainiako zein Europako merkatuetara esportatzen da, energia elektrikoa sortzeko eta, nahiz eta ezeztatu nahi izaten den, argi dago enpresa transnazional horiek azken hamarkadotan izandako giza eskubideen urraketan arduradunak direla, baita klima-krisia eragin eta areagotu izanarenak ere.

Labur esanda, El Cerrejongo meategiak argi uzten du, beste behin, enpresa transnazionalak egiten duten aire zabaleko meatzaritza handia dela mundu mailan ingurumen-eragin handiena duen megaproiektua.



Argazkia: Javier Arjona







Argazkia: Jesus González Pazos, Mugarik Gabe

## Guatemala eta uraren pribatizazioa

1996ko Guatemalako Bake Akordioak sinatzeak positibotik izandako guztiaz landa (gerra bukatzea, nolabaiteko irekidura politikoa...), neoliberalismoa Guatemalan txertatzeko behar ziren baldintzak betetzea ekarri zuen. “Horren haritik hasi ziren zerbitzu publikoak pribatizatzen. Estatua bere betebeharrak enpresa pribatuen esku uzten hasi zen. Batetik, bere herriarekiko zituen ardurak albo batera utzi zituen eta, gainera, enpresa nazionalen eta nazioartekoen inbertsioa eta jabetza pribatua bermatzen hasi zen.”<sup>7</sup>

Egoera horren adibide da honako 2011ko datua, zeina ez baitzen aldatu hurrengo urteetan: “Lurra banatzeko eta eskuratzeko sistema ez da orekatua. Herri indigenak egoera zaurgarrian uzten ditu, batez ere, garapen-proiektuen aurrean (...). Eskala handiko ekoizpenak hartzen du landu daitekeen luraren % 70, eta lur hori lur-jabeen % 2arena da. Lursail txikiak dituzten nekazariak indigenak dira, orokorrean, eta lur horren % 2,5 baino ez da beraia”<sup>8</sup>. Datu horrez gain, beste batek dio emakumeen % 8a baino ez dela lur-jabea<sup>9</sup>.

Gauzak horrela, 2015eko azaroan zenbatu ziren kapital europarrarekin eraikitzen ari ziren zentral hidroelektrikoak: 27 denera, eta beste 20ren eraikuntza prozesua hastear zen. Bost urte igaro baino lehen, 2020ko otsailean, gobernuaren Energia Elektrikoaren Batzorde Nazionalak adierazi zuen Guatemalan 39 presa zeudela martxan.

Hori guztia gertatu da beraien lurraldeetatik kanporatzen dituzten herrietako askok energia elektrikorik ez duten herrialde batean.

Horrek esan nahi du zentral hidroelektrikoak eraikitzearen lehen mailako helburua ez dela Guatemalako herritarren elektrizitate-beharra asetzea, meategiak eta nekazaritza zein industriako ustiapenena hornitzea baizik, eta helburu hori betetzera bideratzen da zentral hidroelektrikoetatik eskuratutako energia gehiena. Horrez gain, Erdialdeko Amerikako gainontzeko herrialdeetara ere esportatzen da, area geografiko horretako garapen ekonomikoko proiektu handiak egiten ari diren horietara, hain zuzen.

<sup>7</sup> Boletín de Resistencia de los Pueblos. Guatemala, 2007ko urtarrila

<sup>8</sup> Naciones Unidas. Consejo de Derechos Humanos. Informe de la Alta Comisionada de las Naciones Unidas para los Derechos Humanos. Guatemala. A/HRC/19/21/Add.1. 2011. (56. eta 66. or.).

<sup>9</sup> Oxfam (2016). “Desterrados: poder, tierra y desigualdad en América Latina”. (27. or.) [https://oi-files-d8-prod.s3.eu-west-2.amazonaws.com/s3fs-public/file\\_attachments/desterrados-full-es-29nov-web\\_0.pdf](https://oi-files-d8-prod.s3.eu-west-2.amazonaws.com/s3fs-public/file_attachments/desterrados-full-es-29nov-web_0.pdf)

## Errepresioa eta kriminalizazioa

Atal honetako lerro gutxi hauek erabiliko ditugu azaltzeko Guatemalan, giza eskubideen eta naturaren defentsa egiten duten pertsonak kriminalizatu eta eta/edo kartzelatzen dituztenean (preso politikoak), dela maila indibidualera mugatzen, nahiz eta, bere horretan, larria izan. Kontuan hartu behar da, era batera edo bestera, subjektu politiko gisa kriminalizatua eta “kartzelatua”, eta are zenbait kasutan zauritua edo eraila izaten ari dena komunitatea bera ere badela.

Bestalde, azpimarratu beharra dago, nahiz eta nazioartean egunkari azaletan agertu ez, gaur egun, eta duela zenbait urtetatik, agintari, komunero eta lider indigenak kriminalizatuak eta kartzelatuak izan direla eta direla, zuzenean hil ez badituzte, legezko gizarte-protesta egiteagatik Guatemalan. Jarduera horien helburua izan da zenbait eskubide defendatzea: lurralde eskubideak, ura ondasun kolektiboa dela, bitzta duina izateko eskubidea eta herri gisa nortasuna izateko eta existitzeko eskubidea. Gainera, giza eskubideen arloko nazioarteko tresna zabal eta ezagunen babesa dute jarduera horiek.

## Alta Verapaz: bioaniztasuna eta pobrezia, maila berean.

Alderdi positiboari begiratuz gero, departamentu horren onena daukan aniztasun kulturala eta soziala da. Aniztasun horren barruan, Q'eqchi' eta Pogomchi' herriak, maiak biak, dira gehiengoa, nabarmen.

Hala ere, estatuak inguru horretan historikoki eta etengabe izandako hutsunea azaltzen dute beste zenbait errealitatek, eta horiek ere Alta Verapazen nortasunaren parte dira. Aipatu berri dugun estatuaren absentiak badu Alta Verapaz herrialdeko pobrezia tasarik handiena duen departamentua izatearekin zer ikusirik (% 83,1, herrialdeko batez bestekoa % 59,3 denean). Txosten honetan beste datu bat ere jasotzen da, oso esanguratsua: lurralde hori da Guatemalako estaldura elektriko kaskarrena duena (etxebizitzaren % 43,49k zuen argindarra, 2013an), nahiz eta

Guatemalako proiektu hidroelektriko gehien dituen lurraldea izan. Renace eta Oxec proiektu hidroelektrikoen area espezifikoa, hots, San Pedro Carchá izeneko udalerrian, etxebizitzaren % 32,78k zuen argindarra 2016an, nahiz eta aipatu proiektuen artetik lehena bertan ezarri zen.

Renace (Recursos Naturales y Celulosas) konplexu hidroelektrikoa izango zenaren lurralde eremuari eta Oxec konplexuari dagokionez, biak ala biak daude Guatemalako ibai garrantzitsuenetakoa den Cahabon ibaiaren eta bere

ibaiadar baten gainean eraikiak. Arroa hori baliabide naturaletan oso aberatsa da, ur, baso, mineral eta, orokorrean, bioaniztasunari dagokionez. Hala ere, esan daiteke aberastasun hori erasotua eta espoliatua izaten ari dela, eta Renace eta Oxec konplexu hidroelektrikoek ez dietela, ezta beste instalazio (Mayaniquel) eta nekazaritza eta industriako enpresa (palmondo afrikarra, azukre-kanabera) batzuek ere, bertako herritarrei ezer galdetu, eta herritarrek ez dutela trukean ezer jaso. Aipatutako horiek guztiek asko eragiten dute lurraldeko ekosisteman eta herritarren bizi-baldintzetan,

kutsadura-prozesuaren, hondakinen gorakadaren, lurrak erauzi eta pilatzearen, deforestazioaren eta bioaniztasunaren galeraren erantzule baitira.

## RENACE eta OXEC konplexu hidroelektrikoak

Enpresak berak aipatzen du “Renace konplexu hidroelektrikoa”. 2019ko urtarrilean lau presa jarri ziren martxan, ur-jauzi eran eraikiak. Horiez gain, ura bideratzeko hainbat kanal eta tunel ere eraiki zituzten Cahabon ibaiaren eta bere ibaiadarren goi- eta erdi-ibilguko kilometro gehienetan (30 bat kilometro denera). Renacek, bere gaitasun guztia aprobetxatuz gero, herrialdeko energia elektrikoaren % 13a sortuko luke. Beste enpresa batek (Energy Resources Capital Group) beste konplexu bat ere eraiki du ibilguan beherago, Santa Maria Cahabon udalerrian, hain zuzen. Konplexu horrek beste bi presa ditu: Oxec I eta Oxec II.

*Herrialde askotan  
ohikoa bihurtu da  
giza eskubideen  
eta naturaren  
eskubideen  
defentsan ari  
direnak  
kriminalizatzea.*



Lehenengo konplexuari dagokionez, Renacek oso kontuz aurkeztu izan ditu berak eginiko lanak iritziz publikoaren, hainbat erakunde eta instantzia nazional zein nazioartekoren eta, bereziki, lurraldeko ingurumen- eta gizarte-iraunkortasunaren aurrean, eta arreta handia erakutsi du lurraldeko ingurumenaren eta gizartearen jasagarritasunari dagokionez. Hala, azpimarratu zuten bukatzean proiektuaren % 80 lurpean geldituko zela (tunel baten bidez), eta, beraz proiektuak ez zuela ia eragingo arro hidrografiko horretako paisaia. Horrez gain, hasiera-hasieratik erakutsi zuten gizarteko gatazkaren bat sortzeak eragiten zien kezka, eta beraz, adierazi zuten esparru horretan inbertitzeko asmoa zutela. Kanpaina horren adibide dira eta hainbat arlotan Erantzukizun Sozial Korporatibo serio eta arduratsuko ekintzatzat joko lirateke ezarri izan dituzten publizitate eslogan hauek: “Renace, zentzu soziala duen energia” eta “Harro gaude zure komunitatearen parte izateaz”.

Alabaina, inoiz ez diote ezer galdetu komunitateari, nahiz eta guatemalar estatuak berretsitako nazioarteko tresnek hala egitera behartzen duten. Gaur egun, esan daiteke Cahabon ibaia pribatizatuta dagoela, eta, beraz, milaka pertsonari ebazten zaiela ura izateko eskubide unibertsala.

## Baina, nor da nor?

Renace adibide ezin hobea da tokiko oligarkien eta transnazionalen, kasu honetan transnazional espainiarren, artean ezartzen diren aliantzak azaltzeko. Konplexu hori eraikitzeko, beste hainbat enpresa txikiagoren parte hartzeaz gain, enpresa-aliantza indartsu bat sortu zen Guatemalako Corporacion Multi Inversiones (CMI) eta Actividades de Construcciones y Servicios (ACS) espainiarren artean. Esanguratsua da CMIk mende honetako lehenengo urteetan harreman estua egin zuela Espainiako Alderdi Popularrarekin eta ACSrekin. Espainiako prentsaren esanetan alderdi horren ustelkeria kasu ezagunenetako batzuetan parte hartu zuen. Oxec konplexuari dagokionez, Oxec SA eta Oxec II SA enpresak sortu ziren, biak ziren Energy Resources Capitalenak eta bien egoitza zegoen Panaman.



Argazkia: Jesus González Pazos, Mugarik Gabe



## Eta zer egiten dute Europar Batasunak eta Espainiak?

Honako hau dio Administrazio Batzordean 2015eko azaroaren 12an<sup>10</sup> onartutako jokabide-kodearen 8. orrialdeak: "Gutxiengoen eskubideak errespetatu behar dira. Taldeko enpresa guztiek errespetatu behar dituzte herri indigenen, gutxiengo etniko, erlijioso eta linguistiko, desgaitasunen bat duten pertsonen eta langile migratzaileen zein haien familien eskubideak, tokiko legediek eska dezaketena albo batera utzita, hala ezartzen baitute balore korporatiboek eta nazioarteko estandarrek".

Hala ere, Alta Verapazen egindako jarduketei dagokienez, ACSk beti argudiatu izan du herritarren eskubideei edo lurrari egindako kalteei dagokienez bertan gertatzen dena ez dela ACSren erantzukizuna, konplexu hidroelektriko osoaren jabe den enpresa kontratistarena baizik, hots, CMIrena. Dena den, komeni da jakitea enpresa kontratistak (ACS) ere ardura daukala giza eskubide indibidual zein kolektiboek dagokienez, baldin eta bere jarduketan eraginez

horien urraketaren bat gertatzen bada, izan zuzeneko zein zeharkakoa. Gainera, egoera horiek saihestu daitezkeen azken enpresa arduradunarengan (CMI) eragin ezin badu, proiektutik irteteko aukera beti dago eskura, aukera ederra baita hori erakusteko giza eskubideak errespetatzeari enpresaren irabaziei baino garrantzi handiagoa ematen zaiola.

Egoera horri aurre egiteko, beste antzeko ehunka egoeratan Europako instituzioek egin bezala, Espainiakoei ere ezikusiarena egitearen aldeko hautua egiten dute. Ez da giza eskubideei buruzko nazioarteko estandarrak behar bezala betetzen ote diren zaintzen, eta beraz, aipatu enpresek ez dute inolako oztoporik denak urratzeko, baita beraien ereduak kodeetan ezarritako neurriak ere.

## Eskubideak betez?

Kontsulta prozedura barregarriez gain (zenbait familiak baino erantzuten ez dituzten inkesta batzuk), enpresek lau

haizeetara aldarrikatu izan dute energia-ustategiaren zentzu soziala. Egia esan, hori horrela balitz, enpresek dituzten irabazi ikaragarriak komunitatearekin partekatu eta komunitatearen garapenari ekarpen zintzoak egingo litzaizkioke. Baina, aurrez ikusi den gisan, komunitate kaltetuen eta Alta Verapaz departamentu osoaren elektrifikazio maila baxua da, eta horri beste hainbat oinarritzko zerbitzuren falta gehitu behar zaio, ur-hornidura falta, edo saneamendu falta, kasu.

*Guatemalako eta  
Espainiako  
kapital nagusien  
arteko ekonomia-  
aliantza estua  
interes politikoen  
eta elkarguneen  
ondorio ere bada.*

Eta nahiz eta CMIk une batez adierazi zuen inbertsioaren % 3 halako proiektuetara bideratzen zutela, lasai esan daiteke etekinak ez direla berrinbertitzen, ezpada unean-uneko material entrega txikiren bat (eskola-motxilak eta -materiala ematea, euri-ura biltzeko tinkak, ongarriak buruzko gaikuntzaren bat eta aldi baterako enplegu-planak). Gauzak horrela, pobrezia mailak eta zerbitzuen eta oinarritzko beharizaren estaldura baxuak ez dute hobera egin CMI eta Cobra-ACS iritsi aurreko garaietatik.

## Kriminalizazio prozesua

Kaltetutako biztanleriaren artean laster zabaldu zen ikuspegi kritikoa eta emandako hitza ez betetzeak eta, batez ere, iragarritako garapena iritsiko ez zela eta uraren eta lurraldeen gaineko kontrola galtzen joango zirela jakiteak eragindako haserrea. Zer esanik ez egoera horrek hurrengo belaunaldiak hipotekatuko zituela jakiteak eragindakoa. Biztanleria, gainera, konturatzen hasi zen nola ingurumena kaltetzen ari zen: emariak desagertu ziren, deforestazioa, bideen kontrola, lurtean eta lurraldeko floran eta faunan afekzioak.

Testuinguru horretan, herrialdean beste batzuetan gertatu izan den gisan, egiaztatu da kriminalizazio-prozesuak eta beldurtze-prozesuak hasi zirela kaltetutako hainbat komunitateren aurka, komunitate horiek egin zuten gizarte-protestari aurre egiteko. Hainbat jarduera behin eta berriz errepikatu ziren: komunerok salaketa judizialak ezarri zizkieten ustezko mehatxuak leporatuta, lurrak saltzea lortzeko presioak, komunitateak ahultzeko liderren kooptazio saiakerak, etab.

<sup>10</sup> [https://www.grupoacs.com/ficheros\\_editor/File/04\\_gobierno\\_corporativo/Reglamentos%20Gobierno%20Corpor/codigo\\_de\\_conducta\\_2015.pdf](https://www.grupoacs.com/ficheros_editor/File/04_gobierno_corporativo/Reglamentos%20Gobierno%20Corpor/codigo_de_conducta_2015.pdf)

Mota horretako prozesuen artetik adierazgarrienetakoa da Bernardo Caal Xolek jasan zuen jazarpena eta atxiloketa.

Q'eqchi's komunitatearen hautu eta erabakiak betez, bera izan da Renace eta Oxec konplexu hidroelektrikoen kontrako oposizioaren buru. Buruzagi horrek jasandako errepresioa Oxec enpresaren eskutik etorri da, eta errepresio horren eraginez oraindik kartzelan dirau. Hainbat instantziak zalantzan jarri izan dute epaiketa hura, ikustaldiak justifikaziorik gabe atzeratu zirelako, apelazioak ukatu zirelako eta hainbat neurri oso kritikagarri eta ulertezin ezarri zirelako. Dena dela, Bernardok kartzelan darrai, bere kontrako epaiketa hura behar bezala berrikusi zain. Amnistia Internazionalak berak ere Bernardo kontzientzia-presoa izendatu du. Bitartean, urte hauetan, Renacek eta Oxecek beraien eraikuntzak egiten jarraitu dute, ia bukatu arte.

## Emakumeen kriminalizazioa

Emakumeen kriminalizazioaz hitz egitea gizarte, eta bereziki estatu, oso arrazista eta patriarkal bati buruz hitz egitea da.

Behar adina ikusarazten ez den arren, larria da lurraldeen defentsari lotutako kriminalizazioaz hitz egiten dugunean, emakumeek jasaten dituzten eraso eta eskubideen urraketa espezifiko buri hitz egiten egotea. Urraketa horien artean arreta berezia izan

beharko lukete indarkeria sexualari loturikoek eta ekintza zein jarrera matxisten gorakadak. Are larriagoa da, gainera. Izan ere, halako erasoak, orokorrean, ez dira salatzen, eta beraz, ez dute inolako zigorrak jasotzen. Bada, eraso horietako asko egin dituztenak konplexu horietan parte hartzen duten enpresetako langileak izan dira.

Bestalde, emakumeenganako presio, errepresio eta kriminalizazio espezifiko errealitate horren ifrentzua

dago, eta garrantzitsua da azpimarratzea emakumeak izan direla gizarte protesta prozesuetako protesten protagonista beraien komunitateetan.

## Eskariak eta aurrerapausoak: eskaria birsortzen, lurraldea defendatzen

*“Besterik gabe  
iritsi eta bertan  
gelditu ziren,  
beraien etxe  
bihurtu zuen  
lurraldea,  
kaltetutako  
komunitateak  
ezagutu gabe. Gu  
lehen  
hidroelektrikoare  
n parean bizi gara  
[Renace I],  
ibairik ez dago  
jada”.*

Komunitate horiek transnazionalak beraien lurraldeetan sartzen ikusten dituzte. Ikusten dute nola, ezer galdetu gabe, instituzioen babes eta laguntza osoa duten, baita indar polizialena ere, izan zitezkeen protestak errepresioaren bidez geldiarazteko. Hilabete gutxiren buruan eraikitzen dituzte presa hidroelektriko aurreratuak, ibaiak desbideratzeko edo lehortzeko gai direnak; soja, palmondo edo kanabera sail handiak edo aire zabaleko ikatz-edo urre-meategiak, etab. Baita horrek guztiak dakartzan ondorioak ere, imajina ditzakezun guztiak: ingurumenaren suntsiketa, kutsadura, lurren metatzea eta baita halako hainbat komunitate eta familiaren desplazamenduak ere.

Goiko hori bezalako giza eskubideen urraketa kasuetatik, izan indibiduala zein kolektiboa, hasten da herrialdeko gizarte-zein komunitate-berrantolaketa, eta herri indigenen antolatze moduak berreskuratzen eta indartzen dira: asanblada, komunitate osoaren parte-hartzea, adostasun bidez erabakiak hartzea eta agintari

tradizionalen rolak berreskuratu eta gizarte-antolakundeak horien osagarri izan daitezen moduak bilatzea, ekonomia-sistema dominatzailatik, hots, neoliberalismotik datozen erasoz beteriko testuinguru berrira moldatzen joango dira. Aldaketa horiek guztiek bide emango dute antolakuntza soziala eta politikoa indartu dadin, argi izanik naturaren eskubideak eta, noski, giza eskubide indibidual zein kolektiboak direla ipar.

Gauzak horrela, azken urteotan Guatemalan indigenen lurraldeetan instalatzeko helburua zuten proiektu handiei buruko 90 galdeketa baino gehiago egin dira. Estatuari eskatu zitzaion NLEren 169. Hitzarmena betetzeko eskatu zitzaion estatuari, zeinak aintzat hartzen baitu komunitateek beraien orainaldiari eta etorkizunari nabarmen eragiten dien garapen-proiektu bati buruz kontsultatua izateko duen eskubidea. Baina estatuak sistematikoki saihestu du eskubide hori, nahiz eta nazioarteko hitzarmen hori berretsi eta, beraz, betetzera derrigortuta egon. Egoera horren aurrean, komunitateak antolatu eta prozesu luzeak hasten dituzte: proiektuari buruz ahal duten informazio guztia bildu, hura eta izan ditzakeen ondorioak aztertu, horien arabera inguruan egon daitezkeen biztanleen gehiengoa eztabaida parte-hartzaile baten bidez adostu eta, asanbladan erabakiak hartu, informatutako kontsulta librerako eskubidea erabiliz. Behin hori eginda, asanbladako emaitzak, betidanik helarazi izan zaizkio, ondo berrmatuta, botere legegileari, emaitzen berri izan dezan eta horien arabera jokatzear gain, botere betearazleari eskatzeko komunitateak proiektu jakin horri buruz hartutako erabakia bete dadila. Haatik, Guatemalan izan diren gobernuak ere ez diote kontsulta horiei baliorik eman izan eta transnazionalen eta tokiko enpresen interesei men egiten jarraitu dute.

Nazio Batuen Erakundeko hainbat estamentuk ere sarri hitz egin izan dute Guatemalan herri indigenei ezartzen zaien garapen ereduaz eta gobernuak herri horiekiko erakutsi duten errespetu falta etengabeaz, kontsultaren hori adibide. Hala adierazten zuen 2010ean, jada, Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen goi-komisarioak bere txostenean. Hala dio testu hark: “Guatemalako garapen ereduak erauzketa-industria, energia-garapeneko proiektu handiak edo esportaziorako eskala handiko nekazaritza ekintzetan oinarritzen da, batez ere. Estatuak erronka bati aurre egin beharra dauka: garapena eskubide indibidual eta kolektiboak errespetatuz lortzen dela bermatzea, batez ere herri indigenen eskubideak: ingurumena babesteko eskubideak, kontsulta eskubideak eta garapen prozesuan beraien lehentasunak zeintzuk diren erabakitze eskubidea errespetatuz”<sup>11</sup>.



Argazkia: Jesus González Pazos, Mugarik Gabe

<sup>11</sup> Pop, Álvaro. (2013). “Informe Evaluación de la Declaración de las Naciones Unidas sobre los Derechos de los Pueblos Indígenas en Guatemala”. E/C.19/2013/CRP.3



Argazkia: Carlos Castro García, *Contrast*

## Honduras: banana errepublikatik errepublika estraktibistara

Hondurasek egungo eredu estraktibistaren jarduketa eta ondorio lazgarrienak jasaten ditu etengabe, bereziki baliabide naturalen ustiapen masiboari eta kontrolik gabeari dagozkionak, eta, horregatik, natura suntsitzeaz gain, pertsonen eta komunitateen eskubideak sistematikoki urratzen dira bertan. Hondurasen, baina, zorionez, badaude jardun horren aurkako komunitateko erresistentziak ere, duela zenbait urtetik munduak Berta Cáceres lider erailaren irudiarekin lotzen dituenak.

Erdialdeko Amerikako herrialde hori bestela ere defini daiteke, eta uler daiteke paradisu bat dela bertako oligarkia txikiarentzat eta mota eta sektore orotako transnazionalentzat; eta, aldi berean, aurrekoaren ondorioz, natura defendatzen dutenentzat infernua dela.

Beraz, Honduras gaur egun lurralde osoan garatzen ari diren proiektu estraktibisten, eta lurralde hori defendatzen duten pertsonen eta komunitateen aurkako giza eskubideen urraketen continuum bat da. Hori dela eta, azken kapitulu honetan kasu espezifikoak aurkezteko

dinamika etengo dugu apur batez, Honduras osoaren kasua mahaigaineratzeko.

Giza Eskubideen Batzorde Interamerikarrak (CIDH) baieztatu zuen “ingurumena, lurra eta lurraldea defendatzen dutenek egiten diete aurre arrisku handienei Hondurasen. Pertsona horiek, gehienetan, indarkeria, kriminalizazioa eta difamazioa jasaten dute, proiektu hidroelektrikoen, meatzaritzakoen edo nekazaritzakoen ondorioz”<sup>12</sup>.

Horrekin batera, baieztatu daiteke Hondurasko ekonomia ainguratuta dagoela produktu tradizionaletan: kafea eta bananondoa, eta, hirugarrena, egungo agronegoziora garaietara hobeikiago dagokiena: palma afrikarra. Horri maquiletako ekoizpena gehitu behar zaio gaur egun (ehun-gaiak, edariak eta jakiak), maquila gehien dituzten herrialdeetan hirugarrena baita munduan, baita iparralde urrunera edo Europara heltzea lortu zutenen bidalketetan ere.

<sup>12</sup> CIDH-OEA (2019). “Situación de los derechos humanos en Honduras”. (pág. 86). <http://www.oas.org/es/cidh/informes/pdfs/Honduras2019.pdf>



## Errepublika estraktibista

Orain urte gutxira arte herrialdeari banana errepublika esaten bazitzaion ere, gaur egun estraktibismo latzenaren mendeko finka handitzat jo daiteke, hau da, errepublika estraktibistatzat.

Azken urteotan, bereziki Manuel Zelaya presidentearen aurkako estatu-kolpearen ondoren (2009), gobernuko propaganda etengabe ari da garapen eta hazkunde ekonomikoaz meatzaritzako, hidrokarburoen eta energia elektrikoaren ekoizpeneko ehunka proiektuk ekarriko dutenaz, baita kontrolik gabeko abeltzaintzako ustiatzek, agronegozioak edo arrantzak ere. Estraktibismoaren bereizgarria da, ordea, Eduardo Gudynas garapen jasangarriaren eta klima-aldaketaaren arloko ikertzaile eta analistaren arabera, “baliabide naturalak bolumen handitan edo intentsitate handiz erauzteak, eta erdia edo gehiago merkatu globaletara esportatzea, lehengai edo commodity gisa”<sup>13</sup>. Horrek berekin dakar sortutako aberastasuna gero eta gehiago kontzentratzea bertako oligarkia

txikian eta transnazonaletan, eta pobrezia dakarkie herritar gehienei. Beraz, nahiz eta gobernuek bata bestearen atzetik ez duten betetzen gehiengo bizi-baldintzak hobetzeko beharrezko egoera antolatzen zeregina, bete-betean asetzen dituzte tokiko eta nazioarteko eliteen interes ekonomikoen eskariak.

Adibidez, estatu-kolpearen segidako hilabeteetan, de facto gobernuaren lehen neurrietako bat izan zen indarrrik gabe uztea gune babestuetan proiektu hidroelektrikoak debekatzen zituzten aurreko dekretuak. Hurrengo gobernuak (2010-2013) legeak onartu zituen ibaien emakida masiboak, presak eraikitzea, meatzaritzako ustiatzeki eta hidrokarburoenak errazteko.

Ildo berari jarraituz, eskusio-eremuak birdefinitzean babesik gabe utzi ziren lehen herrialdeko gune babestutzat jotzen zirenen % 90. Eremu horretan, oso esanguratsua da 2013ko Meatzaritzaren Legea egiteko kontsulta ugari egin zitzaizkiela Kanadako meatzaritza-korporazioei, eta Nazioarteko Garapenerako Kanadako Agentziaren babesa izan zuela. Erraz ulertzekoa da, kontuan hartuta Kanada

izan dela urte luzez Hondurasko meatzaritza-sektorearen inbertsiogilerik handiena.

Azken hori ikusita, erraz ulertzen da, Oxfamen txosten bati jarraituz<sup>14</sup>, indigenen eta afrikar ondorengoen lurraldeetan 2019an meatzaritzako 54 emakida eta erreserba, 36 energia proiektu eta hidrokarburoen ustiatzeki bat daudela. Beraz, esploratze-, eskakizun- eta eten-egoeran dauden emakida guztiei ustiatze-fasean daudenak batuz gero, % 547 ugaritu dira meatzeak indigenen eta afrikar ondorengoen lurretan. Energia ekoizteko proiektuen kasuan, hazkundera % 260koa da.

*Honduras gaur  
egun proiektu  
estraktibisten, eta  
giza eskubideen  
eta naturaren  
kontrako  
urraketen  
continuum bat da.*

### Eragin ekologikoez hizketan

Gune babestuekiko errespeturik ez dagoenez, lehen esan denez, Honduras irekita dago estraktibismoarentzat, eta horren ondorioak dira, besteak beste, ibaiak lehorteak, gainazaleko eta lur azpiko ura kutsatzea, deforestazioa, lurzoruen erabileren aldaketa eta abar, eta abar.

Honduras, beraz, naturaren suntsipen azeleratuari eta klima-aldaketa erantzuteko ingurumen-politika engaiaturik ezaren eta herritarren giza eskubide kolektibo eta indibidualen babesik ezaren artean dabil.

Ez dago zalantzarik: Hondurasko gobernuen ekintzek sustatutako eredu estraktibistaren eraginek eta ingurumenaren aurkako erasoek ondorio larriak dakarzkiete herrialdeari berari eta gehiengo handien bizi-baldintzei. Azken finean, askotan eta gehienbat erakunde sozialek esan dutenez, klimaren krisiak ez du muga politikorik, baina bai klase sozialen eta ezberdinkeria mugarik. Hori dela eta, haren eraginak handiagoak dira gutxien dutenentzat eta, beraz, ezberdinkeria arrakalaren ondorioak gogorren jasaten dituztenentzat. Halaber, garrantzitsua da behin eta berriz errepikatzea eragin horiek gehienbat klima-aldaketa larritzean erantzukizun gutxien dutenak jasaten dituztela. Bitartean, gobernuak eta elite ekonomiko eta politikoek mantendu egiten dute erabakimenez egoera horien aurka egin beharrean larritu egiten dituen sistema.

<sup>13</sup> Gudynas, Eduardo (2019). “Extractivismos y corrupción. Anatomía de una íntima relación”. Ediciones Abya Yala, Quito-Ekuador (22-23. or.)

<sup>14</sup> OXFAM; UNAH; FOSDEH (2019). “Territorios en riesgo II. Minería, hidrocarburos y generación de energía eléctrica en Honduras”. Honduras

## Giza eraginez hizketan

Global Witness-ek, 2019an, honako hau adierazi zuen: “Hondurasen, (giza eskubideen eta naturaren defendatzaileen) hilketak ugaritu egin ziren: 2018an lau izan ziren, eta hamalau 2019an; hortaz, munduko herrialde arriskutsuena da lurraren eta ingurumenaren defendatzaileentzat 2019an”<sup>15</sup>.

Egoera horretan, agronegozioko, energiako eta meatzaritzako proiektuen hedapen librearen argitan, irauteko espazio horiek behar dituzten nekazarien, afrikar ondorengoen eta indigenen komunitateak jarkitzea ekarri du, lurraldea defendatzeko, zentzurik zabalenean (lurrak, lur azpia, basoak, ura, airea).

Horren aurrean, Hondurasko gobernuek, batak bestearen atzetik, tokiko eta nazioarteko enpresen aldeko neoliberalizazio-prozesuak jarraitzeaz gain, protesta eta eskari sozialak sistematikoki kriminalizatu eta zapaldu ditu, bereziki emakumeenak. Hain zuzen, 2015ean soilik, emakumezko defendatzaileen kontrako bi mila eraso baino gehiago erregistratu ziren. 2016an hedabideetan oihartzuna egin zuen Berta Cáceresen hilketak, baina ordutik hamarnaka hilketa eta kriminalizazio espezifiko gehiago gertatu dira, emakumezko defendatzaileen kontrakoak.

Emakumeen aurkako zapalkuntza horrek zerikusia du, zuzen-zuzenekoa, lurraldeen, naturaren eskubideen eta, noski, pertsona guztientzako eskubideen esparruan emakumeen beraien eskubideen defentsan eskuratzen ari diren gero eta lidergo eta protagonismo handiagoarekin. Horrexegatik, gaur egun estereotipoei eta bazterkeriari indar egin behar diote, gizarte patriarkaletik eratorrita badaude ere prozesu estraktibistetan indartu egiten baitira, hemen aurkeztutako kasuetan ondo ikusi ahal izan dugunez.

Hori dela eta, emakumeen azken urteotako aktibismoak kostu jakin bat du, eta zaurgarritasun-faktore jakin batzuk dakartza, adibidez, familiak, komunitateak eta

antolakundeak estigmatizatzen hasi eta botere ekonomikoen eta politikoen agindupean sikarioek edo kidego paramilitarrek hiltzeraino, edo, bestela, estatuaren jazarpena eta kriminalizazioa jasatea.

## Eskubideak urratzen

Lehen esan dugu, eta orain berrets, klimaren krisiak ez duela inolako muga politikorik, baina bai sozialak eta ezberdinkeriaok. Horregatik, eraginak handiagoak dira gutxien dutenen artean eta, horrenbestez, ezberdinkeriaaren ondorioak gehien jasaten dituztenen artean.

Beraz, nazioarteko akordioak gorabehera, Hondurasko estatuak, beste askok bezala, onartu egiten du oraindik informazioarako irispidea izateko eskubidea eta, bereziki, herritarren parte hartzeko eskubidea urratzea. Izan ere, herritarrei ez zaie aintzatesten zuzen-zuzenean eragiten dien erabaki mota horretan parte hartzeko eskubidea, eta enpresek ez dute beren jarduketan inguruan konturik ematen, estatuaren babesaren pean. Adibidez, kasu askotan egiaztatu da enpresek bilerak egiten dituztela komunitatearekin, eta, horietan,

engainuz akordioak sinatzen dituztela enpresa-jarduketari oztoporik gabeko bidea irekitzeko, aurretik askatasunez eta informazioz kontsultatzeko eskubidea oso-osorik bete balute bezala, nahiz eta gezur handia izan. Orobat, inoiz ez da proiektuaren informazio guztia ematen, eta legeak aukera ematen du informazio tekniko eta finantzario asko konfidentzialtzat jotzeko.

Nazio Batuetako Giza Eskubideen eta Enpresen Lan Taldeak bisita egin zuen Hondurasen 2019an. Lan Talde horrek hainbat interesdunekin egindako bileretatik argi eta garbi ondorioztatu zen honako hau: “gatazka sozial askoren funtsezko kausak eta garapen-proiektuen, baliabide naturalak ustiatzearen eta energiaren eta nekazaritzako industriaren sektoreen ondorioz horiek laztea hertsiki lotuta zegoen tokiko komunitateei eragiten dieten erabakiak hartzeko prozesuetako partaidetza esanguratsurik ezarekin.”<sup>16</sup>.

<sup>15</sup> Global Witness (2020). “Defender el mañana. Crisis climática y amenazas contra las personas defensoras de la tierra y del medio ambiente” (pág. 10) <https://www.globalwitness.org/es/defending-tomorrow-es/>

<sup>16</sup> Ibidem (5. or.)

Kasurik onenean, asmoa izaten da komunitateei kontsulta egitea baietz esan dezaten, ados daudela dena delako proiektuarekin. Ezezkoa inoiz ez dute aukeratzat jotzen, ez estatuak ez merkatuek.

Orobat, eta kontinenteko beste herrialde batzuetan gertatzen den moduan, dagozkion eskubide kolektibo eta indibidualak baliatu direnean, eta ingurumena nabarmen suntsitzen duten eta giza eskubideak urratzen dituzten proiektu estraktibisten aurkako protesta sozial legitimoak egin direnean, elite ekonomikoek abian jarri dituzte, elite politikoen eta bereziki estatuaren babesarekin, mekanismo guzti-guztiak, biak ala biak ezabatzeko: protesta sozialaren eskubide eta aukera baliatzea.

Jokatzeko modu horren emaitza oso esanguratsua da Nazio Batuen Giza Eskubideen Defendatzaileen errelatore bereziak berak 2019ko txostenean adierazi zuela Hondurasko herritarren artean 7.000 nekazari, indigena eta herritar “daudela prozesu judizialean auzipetuta lurrerako irispiderako eskubide defendatzearekin lotuta”<sup>17</sup>.

Hori guztia ikusita, Hondurasek beste behin utzi du argi, eskualdeko beste herrialde batzuek bezala, erauzketa-katea deritzonaren eraginkortasuna. Bertan hartzen dute parte, nola edo hala koipetutako katebegi gisa, askotariko eragileek: nazioarteko eremuan (baliabide naturalak erauzten dituzten enpresak eta finantza-erakundeak), maila nazionalan (gobernuak, eliteak, enpresa nazionalak, botere judizial eta legegileekin, indar armatu eta polizialekin eta hedabide masiboekin batera) eta tokian-tokian (tokiko administrazioak eta eragileak). Guzti-guztiek dituzte zeregin estrategikoak ingurumenaren eta giza eskubideen gatazkak sortzean.

## Erresistentzien batura

Txosten hau kutsu positiboarekin amaitzeko, baina, garrantzitsua da azpimarratzea herrialde hau ikusezina bada ere munduko geopolitikan, natura eta eskubideak defendatzen saiatzen diren komunitateak eta liderrak kriminalizatzen badira ere, iparralderantz migratzaile askoko karabanak badoaz ere, oraindik ere lurralde gakoa da, eta bertan estraktibismo aseezinaren aurkako erresistentzia sozial komunitario indartsu ausart eta garrantzitsua dago. Erresistentzia horrek darabiltzan estrategien artean daude lurraldeak kontrolatzea eta berreskuratzea eta prestakuntza- eta kontzientziazio-prozesuak, eskubide indibidual eta kolektiboak defendatzea eta borroka juridiko nazionala eta nazioartekoa, naturaren aurkako eraso zehatzak salatzea eta komunitatea indartzea. Hori guztia, bizitza naturala eta giza bizitza erdigunean jartzeko parametro utziezinari jarraituz, batez ere ulertuta bigarrena ez dagoela lehenaren gainean, baizik eta haren berezko parte bat dela.

Noranzko berean doaz 2021eko azaroaren 28ko hauteskundeetako emaitzak, Hondurasko ezkerak irabazi baitu. 2009ko estatu-kolpetik hamabi urte igaro ondoren; hamabi urtez hauteskunde-iruzurrak izan ondoren (3); lurraldeak suntsitu dituen eta milaka gizon-emakume migratzera behartu dituen estraktibismo basatia hamabi urtez jasan ostean; hamabi jazarpen-urteren buruan; Hondurasko herria, Berta

Cáceres eta giza eskubideen eta naturaren defendatzaile asko eta asko hil eta kriminalizatu ondoren, bide berri bat ireki da, bidezkoagoa eta egiaz demokratikoa izango dela espero den gizarte baterantz.. Ikusezin bihurtu dituztenek, ez entzunarena egin zaienek, berreskuratu egin dituzte plazak, kaleak eta soroak, eta garai berri bat hasi dute.

*Klimaren krisiak  
ez du muga  
politikorik, baina  
bai klase  
sozialenak eta  
ezberdinkeria-  
renak. Horregatik,  
eragin  
handiagoak ditu  
gutxien dutenen  
artean eta,  
horrenbestez,  
ezberdinkeria-  
ren ondorioak gehien  
jasaten  
dituztenen  
artean.*

<sup>17</sup> Giza Eskubideen Kontseilua-Nazio Batuak (2019). “Visita a Honduras. Informe del Relator Especial sobre la situación de los defensores de los derechos humanos” (12. or.)



Argazkia: Comunidad "El Progreso" Andrea Carrillo, La Cuerda

Izan ere, Hondurasen, Paraguain, Kolonbian, Guatemalan eta planeta osoan bezala, Bizitza bera Jokoan dago, eta klimaren krisia eta giza eskubideak egiaz egikaritzea hertsiki lotuta daude. Hori dela eta, ezin da krisi baten edo hainbaten aurka borrokatu ez badugu naturaren bizitza eta planetako pertsonena eta herriena gure erabakien eta ekintzen erdigunean jartzen.

*"Amalurra, militarizatuta, hesituta, pozoituta [...] ekin diezaiozun eskatzen ari zaigu".*

**Berta Cáceres**



